



**GEROABAI**

LA NAVARRA DE TODOS/AS  
GUZTION NAFARROA

# **OINARRI POLITIKOAK**

## 2015

## **AURKIBIDEA**

SARRERA	7
GIZARTE POLITIKAK	13
OSASUNA	19
HEZKUNTZA	25
ENPLEGUA	33
AUTOGOBERNUA	43
FISKALITATEA	49
INGURUMENA   IRAUNKORTASUNA	57
HIZKUNTZA-POLITIKA	63
KULTURA	69
GOBERNU IREKIA	75
GENERO BERDINTASUNA	81
TOKI ADMINISTRAZIOA	87
FUNTZIO PUBLIKOA	93
KIROLAK	99
BARNE POLITIKA	105
GAZTERIA	111
LEHEN SEKTOREA	119
BIZIKIDETZA, MEMORIA ETA ADISKIDETZEA	125

**NAFARROA BERE  
ONERA EKARTZEA**



GEROABAI

Oinarri Politikoak

NAFARROA BERE ONERA EKARTZEA

### **BEHARREZKOA DEN PROPOSAMENA**

Denok jakin badakigu zeinen sinesgarritasun txikia duten hauteskunde programek jendartearentzat, gaur egun. Arrazoiak argi daude: herritarrak nazkatuta daude bete gabeko promesaz, engainuz, aunitzetan gauza bat esan eta kontrakoa egin izanaz, eta nazkatuta ere, behin hauteskunde deialdia iritsitakoan, ordura arte ahazturiko edo bete ez diren promesak berriz ere plazaratzen direlako.

Geroa Bain horretaz guztiaz gara jakitun, baina aldi berean zinez uste dugu ausardiaz eta zintzotasunez hartu behar dugula erantzukizuna gure gain, gure proposamenak herritarren aurrean azaltzeko, haien iritzipean jartzeko eta haien ebaluazioa jasotzeko, hau da, herritarrei azaldu behar diegu zer ideia dugun Nafarroa posibleaz eta zer proiektu darabilgun helmuga horretara iristeko. Horixe egin nahi dugu orain, apaltasunez egin ere, eta erabat sinetsirik gaude bide horretan ahalik eta konplizitaterik gehienak bildu beharko ditugula, Nafar herritarrek horrela agintzen badigute.

### **GURE ABIAPUNTUA:**

#### **EGUNGO EGOERAREN LARRITASUNAREN HANDIAZ JABETZEA**

Egun Nafarroan gobernatzeko ardurak bere gain hartzen dituenak lan gaitza izanen du, eta izugarri konplexua izanen da, gainera. Gutariko askok geure buruari galdetzen diogu nola iritsi ote garen honaino, nola iritsi den ataka mehar honetara ongi prestatuturiko jendarte solidario, saiatu, ekimentsu eta bere buruaz harro zegoen bat, eta horrek agerian jartzen du kudeaketa ez dela batere eraginkorra izan, dirua ausarki xahutu dela, ustelkeria harat-honat ibili dela, erabaki okerrak hartu direla, eta era berean, ekimenik eza begi-bistakoa izan dela. Horren ondorioz, harro egoteko moduko erakunde guztiz adierazgarriak desagertu edo arrisku gorrian jarri dira, eta hemen eta hemendik kanpo ospe handia duten zerbitzu publikoak hondatu dira. Eta bitartean, agintean daudenak atsegin betean ageri dira, ez dute inolako erantzukizunik hartu nahi, eta hori gutxi delakoan, besteei festa-zapuztaile eta ezetzaren sindikatuko kide izatea leporatzen diete.

Egoera honek larriki kaltetu du Nafarroako kanpo-irudia, bai eta geure izaerari buruzko eta izan gaitezkeenari buruzko geure estimua ere, eta funtsean arrazoi bakar batek eragin du: baliorik ezak. Izan ere, Nafarroako botere guneetan ez da baliorik batere izan Komunitatearen zuzendaritzan eta erabakietan. Balio-krisiak klientelismoaren interesak eta interes ekonomikoak hobetsi ditu, denak xede partikularren zerbitzuan eta interes orokorraren kaltetan; hau da, errentagarritasun politikoa errentagarritasun sozialaren gainean jarri dute, politika kasta-pribilegiotzat jo dute, eta ez zerbitzutzat, eta politikaren funtsezko



eginbeharra baztertu eta mespretxatu dute, hots, dibertsitatean elkarrekin bizitzearen pedagogia egitea.

### BALIOAK OINARRI DITUEN PROPOSAMENA

Egun arazo larriak ditugu eta premia osoz egin behar zaie aurre, hala nola langabezia, gure industria-sarearen hondamena, gure enpresen lehiakortasuna, Nafarroako marka-irudia, gure osasun-sistema publikoa, gure hezkuntza, edota jendarteko jende behartsuenen estaldura. Horretaz guztiaz aurrerago mintzatuko gara. Baina aldaketaz mintzo garenean, Nafarroak ezer behar baldin badu, ez da izen edo sigla aldaketa hutsa, balio aldaketa baizik.

- **Gizarte-kontratu berria.** Aurrean dugun gobernu-lan izugarriari ekiteko, baldin eta herritarrek ardura hori ematen badigute, gizarte-kontratu berri bat beharko dugu Nafarroako gizon eta emakume guztien artean, oinarri etikoen gainean eraikitako kontratua, norberaren ardura abiaburu harturik: hots, gutariko bakoitzak bere ardura hartu behar du bere gain Nafarroa bere onera ekartzeko. Aurrera begira, ezin gara guztion bizitzan gertatu den hondamendiaren ikusle huts izan, eta hau edo hura erruduntzat jotze hutsaz haratago jo beharra dago. Enpresaburu bakoitzak, langile bakoitzak, funtzionario bakoitzak edo profesional bakoitzak konpromisoa hartu behar du, gure Komunitatea Europan aurrerapenaren abangoardia izan dadin.
- **Zintzotasuna eta fidagarritasuna.** Zintzotasunak eta emandako hitza betetzeak duten balioa nabarmendu behar dugu, gure lanaren ardatz izan daitezten. Horrela bakarrik izanen baikara berriz ere indartsu eta gauza, mundu global eta aldakorraren erronkei aurre egiteko.
- **Argitasuna.** Uneoro argitasunak gidatu behar gaitu. Argi izateko borondateari argudioak ematearen ahalegina erantsi behar zaio. Hitz batez, diagnosiaren doitasunak ekintza politikoaren abiapuntua izan behar du.
- **Metodoaren beharra.** Demokrazia dugu xede eta bide. Hau da, boluntarismoa ez da inoiz aski izan politikagintzan, are gutxiago krisiak bazterrak ederki jo dituen uneotan. Metodoa, lan-plangintza eta helburuen hurrenkera behar bezala finkatzea ditugu izateko arrazoi, eta politikagintza demokratikoaren lanabes.
- **Konpromiso politikoaren zintzotasuna.** Erabat sinetsirik gaude konpromiso politikoa dela giza faktorearen funtsik zintzoenetakoa eta, halaber erabat sinetsirik gaude arlo publikoarekiko dedikazioa ez dela eta ez duela izan behar gure herriari diogun maitasunaren eta nafar jendartearendako zerbitzuaren adierazpena baizik. Eta bide horretan, emaitzak hobeak izanen dira, zenbat eta handiagoa izan geure uste osoekiko fideltasuna.

### ZER NAFARROA NAHI DUGU?

- **Nafarroa, subjektu politikoa.** Geroa Bairen irudikoz, Nafarroa subjektu politikoa da, eta horixe aldeztu du. Hori da gure oinarria. Beste batzuentzat, ordea, Nafarroa objektu hutsa da, trukerako txanpon hutsa. Horregatik defenditzen dugu Nafarroa izanen dela nafarrek nahi duten huraxe, inolako inposaketarik gabe eta inolako apriorismorik gabe. Nafarroak bere autogobernua defenditu eta sakondu behar du, aurre egiteko Estatu berdintzeko eta berriro zentralizatzeko saiakerei; horixe, beraz, izanen dugu eginkizun gure politikagintzan.
  - **Gizarte Burujabetasuna.** Gure ezaugarriak eta gure burujabetasun guneak defenditu eta berreskuratu behar ditugu, eta ekinbide horretan, batez ere burujabetasunik benetakoena eta hurbilekoena aldeztu dugu: hots, gizarte burujabetasuna. Berdintasunik gabeko jendartea da, bizitza duina eta aukera berdintasuna bermatuko dituen gizarte ongizaterako sistema. Azken finean, herritarren burujabetasuna aldarrikatzen dugu, hau da, pertsonaren askatasuna, eta askatasun horrek hainbat izen ditu: enplegua, osasuna, hezkuntza, beharrik handienean daudenei laguntzea...
  - **Politika barne-hartzailea.** Baina eraiki nahi dugun Nafarroa horretan nafar guztiek izan behar dute lekua. Frentismoa errotik kendu beharra dago politikagintzatik, gure jendartea bitan zatitu nahi baitu. Aniztasuna aberastasuna baita, eta pertsona desberdina eta gurekin bat ez datorrena errespetatzeak izan behar du politikagintzan portaera-arau.
  - **Jendarte irekia.** Nafar herritarrek, beraz, jendarte irekia osatzen dute, jendarte anitza eta bizia, eta muturreko jarrerak edo totalitarioek ez lukete gure jendartea gobernatu behar; gure jendarteak bakean bizi eta jo nahi du aitzinera.
- Zentzuzko aldaketa dugu xede, gai den aldaketa
- **Zentzuzko aldaketa.** Hau da, behar den lasaitasuna behar dugu nafar guztiok batzen gaituzten oinarri-oinarrizko gauzak bilatzeko. Aldaketak akabera eman behar die gure gizartean gertatzen diren enfrentamendu funsgabeei edo interesatuei. Zentzuzkoa izan behar du, aldaketak behar adinako egonkortasuna izan dezan denboran, hori ezinbestekoa baita Nafarroan beharrezkoak diren erreformei ekiteko.
  - **Gai den aldaketa.** Onenen gobernuaren alde egingen dugu, eta ez dugu nahi alderdikeriak inposatutako kuoten araberako gobernurik. Gaitasun handiena dutenen interesa piztu behar dugu, Nafarroa erdi-erditik jo duen

## NAFARROA BERE ONERA EKARTZEA

krisiari garantiaz aurre egiteko. Aldaketak, gainera, uneoro eta egoera orotan izan behar du entzuteko gauza herritarrek gobernu onetik itxaroten dutena eta irrikatzen dutena. Aldaketak, finean, gauza izan behar du guztion parte hartzea biltzeko.

Zentzuko aldaketa, gai den aldaketa. Bada aldaketa horrek premiazko aferak konpontzeari heldu behar die, eta horretarako, epe laburrean konponbideak behar dira. Era berean, sosegu handiagoz baina pausarik gabe jorratu beharreko helburuak ditu. Hori guztia azalduko dugu hemendik aurrera.

# GIZARTE POLITIKAK



## GIZARTE POLITIKAK

Azken urteotan, Nafarroako ongizate mailak izugarri behera etorri dira. Nafar jendartea, gaur egun, behartsuagoa da, barne kohesioa txikiagoa da, eta jende gehiago dago gizartean baztertua. Egoeraren latza ikusirik, UPNko (eta PSNko) gobernuak are gehiago zigortu ditu nafar herritarrak etengabe, eta beste esparru batzuetako murrizketa ekonomizistak ezarri ditu gizarte politiketan. Izan ere, gizarte prestazioak murriztu ditu zenbatekoan (adibidez, Mendetasunean daudenei laguntzeko prestazioak); onuradun kopuruan (adibiderik garbiena da Oinarrizko Errentaren ordezkari Gizarteratzeko Errenta ezarri izana, hau da, askoz ere murriztagoa, eta premiarik oinarrizkoenak asetzeko baliabiderik batere ez duten pertsonak eta familiak kanpo utzi dituenak), eta halaber, jendea gizarteratzeko eta laneratzeko egiazki eraginkorrak diren funtsezko baliabideak murriztuz, hala nola Gizarte Enplegu Babestua.

Oso kudeaketa txarra izan da, inolako plangintzarik gabea, eta kostuak merkatzea izan da helburu bakarra. Izan ere, diru-laguntzak arreta bermatzen duten Zerbitzuen gaintik hobetsi dituzte. Kudeaketak askoz ere gehiago begiratu dio negozio pribatuari onura publiko eta sozialari baino. Horren erakusgarri da Toki Entitateen mendean dauden zerbitzuengatik erakutsitako interesik eza; nagusiki, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek ematen duten Lehen Laguntza, eta zenbaitetan, ukatu ere egin diete legez zegozkien finantzaketaren zati bat.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO GIZARTE-POLITIKA NAHI DUGUN**

**GEROA BAI**k arestian azaldutako egoera bestelakotu nahi du:

- Sistemaren oinarrian berdintasuna, elkartasuna eta justizia birbanatzailea jarriko ditugu.
- Gure irudikoz, Gizarte Politikak, zerbitzu eta prestazio multzoa izateaz gain, **Konpromisoa** ere badira, hots, etorkizuneko Gobernuaren jarduketa guztiak ukituko dituen konpromisoa.
- Honatx lan-ildoak:
  - Herritarrei kendutako arreta mailak berreskuratzea.
  - Gizarte Zerbitzuetarako eskubide subjektiboa finkatu eta errotzea, prestazio bermatuak pixkana-pixkana zabalduz.
  - Gizarte prestazioetarako eskubide horiek berdintasunean ezartzea jende guztiarentzat, alde batera utzita jatorriari, generoari, etniari, adinari, ideologiari, hizkuntzari, administrazio-egoerari eta abarri dagozkion baldintza oro, eta hartzaileen artean, lehentasuna eman egoerarik ahulenean daudenei eta hauskortasunik handienean daudenei.



## LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

**1. Gizarte Ongizaterako Behatokia** sortzea, eskura dagoen informazioa biltzeko eta, era berean, gizarte politiken plangintza eta diseinua orientatzera bideratutako azterlanak proposatzeko.

**2. Zerbitzu Publikoak** aldeztu eta sustatzea, lehendik daudenak bermatuz, bereziki ez pribatizatuz inolako premia edo arazo motarik baloratzeko eginkizuna duen zerbitzurik batere, eta zerbitzu batzuk kudeaketa publikorako berreskuratuz, hori egingarria bada.

**3. Hitzarmenak berrantolatzea**, pribatizatu diren Zerbitzu guztien gaineko azterlan zehatza eginez (egoitza zentroak, bereziki), ikuskapenak ugarituz, kontrola areagotuz eta behar diren bitartekoak abian jarritz irabazi-asmorik gabeko gizarte ekimena eta merkataritza enpresen ginetik ekonomia sozialeko enpresak lehenesteko.

**4. Ordainkidetza arautu eta mugatzea**, eta bakar-bakarrik egoitza izaerako prestazioetarako erabili (gizarte kanporaketaren arloa kanpo utzita), eta bi lerro gaindiezin ezarrita: inor ez da zerbitzurik gabe geratuko, dirurik ez izateagatik, eta inork ere ez du zerbitzu gehiago jasoko diru edo ondasun gehiago eskura izateagatik.

**5. Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko berria** prestatzea, arreta eta osasun arloko lehentasunak ezartze aldera, Zerbitzuak eta Prestazioak Nafarroako eremu guztietan orekaz bana daitezen lortzera bideratuta.

**6.** Plan, programa eta gizarte prestazio bakoitzean **genero-ikuspegia** kontuan hartzea.

**7.** Oro har, herritarren, eta, bereziki, erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuetan **eraginkortasunez parte hartzeko** bidea egituratzea.

**8. Lehen Laguntza:** oinarrizko eremu guztietan sendotzea, finantzaketa egokia eta behar diren langileak nahiz bitartekoak ziurtatuz. Oinarrizko Gizarte Zerbitzu guztietan Arreta Komunitarioa ziurtatzea. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan berdintasun arloko teknikaria kokatzea eta zer programa zehatz garatuko duten diseinatzea. Bi urtean, Gizarte Zerbitzu guztiak ezartzea.

### 9. Gizarteratze arloan:

**9.1.** Sektoreen arteko Plan bat prestatzea, erabat kanporatuta dagoen jendearen egoera kontuan hartuko duena.

**9.2.** Jende guztiari gutxienezko diru-sarrera bat bermatzea, Oinarrizko Errenta unibertsalaren bidez; baldintza urtebeteko egoitza antzinasuna izanen da;

zenbatekoak zehazteko, urteko lanbide arteko gutxienezko soldata hartuko da aintzat; 65 urtetik gorakoentzat ere bai; aurrez ez da eskatuko gizarteratzeko akordioak, baina onuradunek konpromisoa hartu beharko dute erabilgarri egonen direla enplegurako eta haien enplegugarritasuna hobetzearekin lotuta dauden ekintzetarako; bahituezina; mugarik gabea emate epeetan, beharrak badirau; zenbatekoak familia unitateko kide kopuruaren arabera kalkulatu dira, eta inolako murrizketarik gabe hasierako eskaerari jarraitzen zaizkien berrikuntzei.

**9.3.** Laneratzeko esparruak areagotzea, eta neurri gehiago hartzea esparru horiek sustatzeko. Eskola-Lantegiak, Enplegu Lantegiak eta Gizarte Enplegu Babestua bultzatu eta sendotzea, eta Programa horretara bere osoan bideratzea orain Zuzeneko Enplegu Aktibora bideratzen dena.

**9.4.** Kontratazio publikoan gizarte klausulak betearaztea, eta pribatuan pizgarrien bidez bultzatzea.

**9.5.** Alokairuak ordaintzeko berariazko diru-laguntzak; etxebizitzarako laguntza osagarria, hala nola prestazio bermatua Oinarrizko Errenta hartzen dutenentzat; murrizketak horniduren ordainketan ekonomia prekarioetan; negoziatioak banku-entitateekin, etxebizitza bahitu dieten familien egoera aztertzeke; arreta prebentiboa etxebizitza galtzen dutenei, kaleko egoerak saihesteko; kanporaketa egoeran daudenentzako etxebizitzak zaharberritzeko jarduketak areagotzea, eta hainbat egoeratarako ostatuak bermatzea.

**9.6.** Esku-hartze integralak, defizita metatua duten auzoetan gizarte kohesioa sustatzeko. "Gizarteratzeko Etxebizitza Programari" jarraipena ematea eta sustatzea; batez ere, alokairuko etxebizitzari dagokionez (VAIS), eta behar berrietara moldatzea.

### 10. Mendetasunarentzako Arretan:

**10.1.** Autonomiaren sustapena bultzatzea, mendetasunaren prebentzioa azpimarratuz. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak bultzatzea, mendekoak ez direnentzako arreta sustatuz eta arreta bera zabalduz.

**10.2.** Hiru hilabetera murriztea mendetasuna baloratzeko erabiltzen den denbora, eta itxaron zerrendak ezabatzea, hala balorazioan nola baliabideen aplikazioan.

**10.3.** Prestazioak birbideratzea, zerbitzuen zuzeneko prestazioa areagotuz diru-laguntzen kaltetan, eta diru-laguntzen zenbatekoak itzuliz murrizketak hasi aurreko kopuruetara. Horretarako, egoitza baliabide aski izatea, eta beren etxebizitzan bizi diren pertsonentzako prestazioen bateragarritasun beharrezkoa mantentzea.

## GIZARTE POLITIKAK

**10.4.** Eguneko Zentro publikoetako toki kopurua handitzea.

### **11. Arreta Sektorialan:**

**11.1.** Haurrentzako Plan berria prestatzea eta Nafarroako haur eta gazte arloko elkarte eta taldeen komunitateen arteko Sare bat sortzea eta, era berean, Nafarroako denetarikozko gazte esparru publikoen Sarea.

**11.2.** Indarkeriari aurrea hartzeko programak ezartzea; sexismoa eta eskola-jazarpena errefusatzen irakastea, eta tratu onak eta harreman kooperatiboak sustatzea.

**11.3.** Gazteak hezkuntzan, gizartean eta lanean sartzeko plan integrala, prestakuntza arloko neurriak hartzeko, kontratazioa sustatzeko, eta gazteak laneratzeko programak abiarazteko.

**11.4.** Etorrinak arrazoi ekonomikoengatik Hartzeko Programak, eta ezberdinen arteko kulturartekotasuna eta bizikidetzatza sustatzea.

**11.5.** Desgaitasuna duen Jendeari Arreta egiteko Plan Integral berria, hainbat printzipio oinarri harturik, hala nola aukeraketa askatasuna, norberaren autonomia eta bizitza independentea.

**11.6.** Zahartze Aktiborako Plan bat prestatu eta abian jartzea.

**12. Garapenerako Lankidetzan** berehalako batean Nafarroako Gobernuak pauso eraginkorrak emanen ditu, Garapenerako Laguntza Ofizialean Barne Produktu Gordinareneko % 0,7ra iristeko, Nafarroako Pobreziaren aurkako Itunaren proposamenarekin bat, Zero Pobrezia Plataformak prestatutakoa.

# OSASUNA



## OSASUNA

Osasuna giza eskubidea da eta funtsezko baliabidea pertsonen eta herrien bizitzarako. Osasuna hein handian dago gizarte baldintzen menpe, eta era berean, jendearen jaiotza, bizitza eta lan baldintzen menpe. Egungo krisi ekonomikoa, eta agintariek ezarritako austeritate neurriek, gizarte eta osasun arloko desberdintasunak areagotu dituzte, eta behar bezalako politiken bidez egin behar zaie aurre, hau da, politika horien erdigunean jendearen osasuna nahiz ongizatea jarri behar dira.

Osasun sistemek egokiro bakarrik funtzionatzen dute, baldin eta irizpide jakin batzuetan oinarriturik eraikitzen badira: hots, unibertsaltasuna, berdintasuna, elkartasuna, gardentasuna, parte-hartzea, kontua ematea, eraginkortasuna eta eragingarritasuna, osotasuna, praktika egokiak, etika eta ardurakidetzat. Bada, hori kontuan hartuta, gure osasunean indarguneak eta ahuldadeak ikusten ditugu.

Nafarroako osasunak hainbat indargune ditu, baina ez dira behar bezala garatu eta garapen desberdina izan dute. Hona hemen nabarmentzekoak: indarrean dauden osasun planak (osasun plana 2014-2020, osasun mentalari buruzko plana, lan osasunari buruzko plana, koordinazio sozio-sanitariorako plana), Osasunbidea, eta, batez ere, Osasun Publikoan ari diren pertsonen maila profesionala, teknikoa eta gizatasuna dira nabarmentzekoak. Beste indargune bat da herritarrek osasunari eta osasun sistemari ematen dieten balio soziala.

Honatz ahuldadeak: zerbitzua gero eta okerrago egotea, hamaika privatizazio egin baitira, bai eta eraginkortasunik eza ugari ere, osasungintza behar adina finantzaturik ez egotea, eta murrizketa etengabeak, giza baliabideek politiken ezegokitasuna, eta osasun komunitarioa sustatzeko programen defizita.

**Geroa Bai**, alderdi horiek lehentasunez hobetu nahi ditugu.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO OSASUNGINTZA NAHI DUGUN**

Osasuna 21 izenburuko estrategia da Osasunaren Munduko Erakundearen Europako Eskualdeak "osasuna guztiontzat XXI. mendean" ekimenaren politika globalari emandako erantzuna, eta funts etiko hauek ezarri ditu: "osasuna, gizakien funtsezko eskubidea. Berdintasuna osasun arloan, eta ekintza elkartasuna herrialde guztietan, haien barnean eta biztanle guztien artean. Jendearen, taldeen, erakundearen eta komunitateen parte-hartzea eta ardura osasunaren garapen etengabea".

Geroa Bai bat dator OMErekin, hau da, osasun sistemek funtsezko printzipio batzuk izan behar dituzte, hala nola unibertsaltasuna (gizartea kohesionatzeko bidea da, eta kanporaketarako nahiz desberdintasunerako arriskua murrizten du krisi egoeretan); arreta integrala eta etenik gabea haren dimentsio fisikoan,

psikikoan eta sozialean; berdintasuna; funtzionaltasuna; eraginkortasuna; parte-hartze komunitarioa; diziplinartekotasuna; sektoreartekotasuna eta justizia soziala.

**Geroa Bairen** irudikoz, osasuna ardura publikoa da; beraz, erakundeek egokiro finantzatzuz eta gastua eraginkortasunez kontrolatuz babestu eta sustatu behar dute. Osasuna ezin da neurtu errentagarritasun ekonomikoaren ikuspegitik. Osasun-sistemari eutsiko bazaio, hala ere, baliabideak eraginkortasunez kudeatu beharko dira, zerbitzuaren kalitatea mantentzeko bidea emanen duena. Hain zuzen ere, kalitatea-eraginkortasuna binomioak emanen digu sistema indartzeko aukera, eta zerbitzuak kanpora ateratzeko eta pribatizatzeke ereduak bazter uztea.

## LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

**1. Arlo publikoaren aldeko apustua: pribatizazioak amaitzea, eta pribatizatutako zerbitzuak berreskuratzea.** Zerbitzuak pribatizatzeke prozesu guztiak izoztu behar dira eta, aurrez analisi teknikoa, juridikoa eta ekonomikoa eginda, premia osoz egutegi bat ezarri, pribatizatutako zentroak eta zerbitzuak berreskuratzeke.

**2. Unibertsaltasuna:** Nafarroan bizi den jende guztiari gizarte eta osasun arreta ziurtatzea, eta 1986ko Osasunari buruzko Lege Orokorra bete dadila bermatzea. Era berean, 16/2012 Errege Dekretu Legea ezabatzea, zeinaren bidez osasun publikorako laguntza jasotzeke, derrigorrez aseguratuta egon beharra baitago.

**3. Lehen Laguntzari lehentasuna ematea.** Lehentasunezke arreta gune gisa berreskuratzea, eta sustapen nahiz prebentzio jarduerak sendotzea. Aurrekontua nabarmen handitu behar zaio, eta osasun etxeak behar adina bitartekoz hornitu behar dira, osasun arazoan % 80 artatzeko; halaber, Banako Osasun Txartelen kopurua jaitsi beharra dago profesional bakoitzeke, eta legeria bete behar da osasun etxe bakoitzean egon beharreke gizarte langileen presentziari dagokionez.

**4. Osasun-sistema publikoaren berezko baliabideen erabilera intentsiboa.** Kanpo entitateekiko itunak eta bideratzeak berrikusi eta ahalik eta gehien kontrolatzea.

### 4.1 Arreta espezializatua:

- Batasuna Nafarroako Ospitalegunean finkatzea
- Zerbitzuak zentzuzko eta eraginkortasunezke irizpideen arabera egokitzea: kontsulta telefonikoak edo zibernetikoak sustatzea, baliabideak ahalik eta hobekien erabiltzea (ebakuntza-gelak, endoskopiak, etab.).

- Informazio eta ebaluazio sistemak hobetzea.

**4.2.** Kudeaketa parte-hartzailea, eta mailen koordinazioa nahiz integrazioa hobetzea. Lizarrako eta Tuterako ospitaleen eta Nafarroako Ospitalegunearen arteko elkarlana maila guztietan areagotzea. Laguntza mailen arteko elkarlana, lehen laguntzaren eta laguntza espezializatuaren arteko elkarlana areagotzea, kudeaketa klinikorako diziplinarteko eremuak sortzea, tarteko arretarako instalazioak sortzea gaixo kroniko desegonkortuak artatzeko...

**4.3.** Azpiegiturak kudeatzea: Azpiegiturak birdimentsionatzea, eta eskarira nahiz jarduerara egokitzea (Larrialdien Eraikina, laborategiak, UClak, ebakuntza-gelak...).

**4.4.** Larrialdiko osasun laguntza: profesionalen arteko ituna behar da, larrialdiko laguntza periferikoaren eredu bakar eta arrazionala ezartzeko. Larrialdiko laguntzaren koordinazioa eta arrazionalizazioa landa inguruneetan, sistemaren berdintasuna hobetuz. Anbulantzien zerbitzu publikoa sortzea.

**4.5.** Gastu farmazeutikoa, farmakoen zentzuzko erabilera sustatuz, ebidentzia oinarri, eta sendagaien enkanteak abiaraziz.

**5. Osasun Mentalaren plana bere osoan ezartzea.** Osasun Mental Komunitarioan oinarrituriko Eredurantz jotzea.

**6. Familia-plangintza sustatzea, eta sexu osasuna eta ugalketa osasuna sustatzea.** Hezkuntza eta komunitate arloko esku-hartzeak sendotzea, bere osoan martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa garatuz, sexu eta ugalketa osasunari, eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa. Haurdunaldiaren borondatezke etendura osasun sare publikoan egin beharko da.

**7. Giza baliabideetarako eta langileak kudeatzeko politiketarako plana.** Plantillak finkatzea; motibazio profesionala mantentzea, parte-hartzea, prestakuntza eta ikerketa lehenetsiz. Peonadak bakarrik daude justifikatuak, zerbitzua errendimendu osoan ari denean eta profesionalik langabezia ez dagoenean. Lanbide sozio-sanitarioak sendotzea (gizarte langile gehiago eta psikologo gehiago)..

**8. Plan sozio-sanitarioa.** Osasun politikak zeharkakoa izan behar du, eta bere baitan gizarte politikak bildu behar ditu; bereziki, eritasun kronikoentzako eta mendetasunarentzako laguntza.

**9. Osasun-bioteknologiaren Campusa** eratzea. Beste hainbat zerbitzuren artea, bertan kokatuko litzateke Medikuntza Fakultate publikoa.

**10. Herritarren parte-hartzea.** Parte-hartzea eta kontrol eraginkorra bermatzea.



## OSASUNA

Nafarroako Osasun Kontseiluaren eginkizunak berrikustea, bestelako partaidetza moldea sustatzea oinarritzko eskualdean, gaixoari laguntzeko unitateak birbideratzea, etab.

# HEZKUNTZA





## HEZKUNTZA

Hezkuntza, 1948ko Adierazpen Unibertsalaren 26. artikuluan aitorturiko giza eskubidea izateaz gain, ongizate estatuaren zutabe nagusietako bat da. Europar Batasunak hezkuntzan 2020rako ezarri dituen helburu estrategikoak irakaskuntza etengaberako aukeraz eta ikasleen mugikortasunaz mintzo zaizkigu eta, era berean, kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeaz, berdintasuna sustatzeaz, gizarte kohesioaz, herritarren arduraz, eta sormena eta berrikuntza handitzeaz.

Helburu horietarantz aurrera egin beharrenean, azken urteotan gure hezkuntza sistema larriki hondatu da, eta hezkuntzaren kalitateak nabarmen egin du behera. Izan ere:

- Hezkuntza-erreforma etengabeak egin dira gogoetarik, koherentziarik, parte-hartzerik eta kohesiorik gabe, eta era berean, Nafarroakoa bezalako gizarte anitzean dauden koloreak aintzat hartu gabe, garapen eta balorazio denborarik gabe...
- Asmo osoz uko egin zaio Nafarroako hizkuntza eta kultura zaharrenari, eta gure jendartearen kohesioa hausteko asmo garbiz jokatu dute, batzuk beren herrian atzerritar senti daitezen, eta beste batzuek, berriz, bere egin ez dezaten herri honetako sustrairik jatorrizkoenetako bat, sustrai horri entzungor eginez edota kanpokotzat joz.
- Murrizketa nabarmenak eta garrantzitsuak egin dira.
- Atzerriko hizkuntza ikasteko programak zabaldu dira behin eta berriz, euskara barne hartzen duten betiko ereduak ikasle potentzialak eta solbentzia kentzeko asmo bakarrarekin; programa horiek, gainera, ezarri dira kemeni diren ala ez ados jarri gabe, hizkuntza hezkuntza-sisteman nola ikasi behar diren eztabaidatu gabe, eta programen alderdi guztiak ebaluatu gabe.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO HEZKUNTZA NAHI DUGUN**

**Geroa Bairen** irudikoz, **sare publikoa hezkuntza-sistemaren ardatza** eta bizkarrezurra da. Wert Legea indargabetzeko galdatzen dugu, lege berri bat onestaren alde baikaude argi eta garbi, adostua eta guztientzako hezkuntza ardatz harturik, ikasleen garapen integrala eta gizarte kohesioa xede harturik. Ikasleak gizarte aldakor eta mugikortasun handiagoko bateko herritar gisa prestatzea helburu duen hezkuntzaren aldekoak gara gu, horrek inola ere eragotziko ez duela inguru hurbilarekiko ezagutza eta lotuta (kulturala, hizkuntzazkoak, soziala...).

**GEROA BAIk** hezkuntza-esparru egonkorra eta adostua bultzatuko du. Irakasleek, ikasleek eta familiek hezkuntza-administrazio hurbil baten sostengua

## HEZKUNTZA

eta babesa sentitu behar dituzte. Beharrezkoa da irakasleen eta ikasleen edo familien arteko harremana bizitu eta erraztea, eta inbertsio berriak behar dira azpiegituretan eta bitartekoetan.

### LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

Jakin badakigu egungo inguruabarretan eta epe laburrera mugatuak izanen direla eskura izanen ditugun baliabideak. Hala ere, Geroa Bai ahaleginduko da hezkuntza gastua handitzen, BPGren arabiarako pertsona bakoitzeko Europak duen kopurura hurbiltzen. Helburua, edonola, hezkuntza kalitatea hobetzea. Horretarako, ahal den neurrian, honako neurri hauek garatuko ditugu:

**1. LOMCEri** eta legea Nafarroan aplikatzeari dagokienez (ikasleak generoaren arabera bereizten dituzten ikastetxeak diruz laguntzeko aukera jaso duena), Legea indargabetzearen aldekoak gara.

**2. Geroa Bai Nafarroarako hezkuntza-sistema berezkoa eta integratzailea** garatzea sustatuko du, gure autogobernua ahalik eta mailarik gorenera eramanez:

**2.1.** Lege maila izanen duen hezkuntza-sistema barne-hartzailea ezarriko du, eleanitza eta parte-hartzean oinarritua, eta Nafarroako aniztasuna nahiz aberastasuna (euskal kultura barne) errespetatuko dituen hezkuntza-ituna abiaburu harturik, eta ikasleei Nafarroako bi hizkuntza berezkoetan egokiro gaitzeko aukera emanen diena, atzerriko hizkuntzak ikastea galarazi gabe, edozein delarik ere aukeratzen den hizkuntza-eredua.

**2.2.** Hezkuntzarako plan estrategiko bat egingen dugu Nafarroan, helburuak eta helmugak ezarriko, esparru egonkor bat finkatuko duena, gutxienezko oinarri batzuen inguruan adostua, hezkuntzan diharduten sektoreek osatutako mahai zabala abiaburu harturik; besteak beste, Nafarroako Eskola Kontseilua eta irakaskuntzaren mahai sektoriala, eta oinarrizko akordioak lortzea, egonkortasuna eta koherentzia emateko.

**3. Jendartearen zerbitzuko hezkuntza-administrazioaren** alde egingen dugu, hobeki funtzionatu dezan, sektore guztiek hartan berriz ere konfiantza izan dezaten eta hezkuntzan inbertsio handiagoak egin ditzan:

**3.1.** Teknikariak profesionalizatzea, burutza guztietara merezimendu lehiaketa bidez iritsiz.

**3.2.** Azpiegituretako inbertsioak planifikatzea, aurrez eremu guztien gaineko premien azterketa eginez, kontuan harturik gizarte ekimenak azken urteotan egindako azterlanak, eta Teknologia Berrietako lehentasunak zehaztea.

**3.3.** Ebaluazio Institutu bat sortzea, parametro objektibo eta argiekin, eta egungo ikastetxeetako kalitate-sistema berrikustea eta zama burokratikoetatik urruntzea.

**3.4.** EA Erekin eta Iparraldearekin hizkuntza, kultura eta pedagogia gaietan elkarlanean aritzea.

**3.5.** Administrazioak jantokiak, garraioa eta haurren zaintza kudeatzea eskola-orduak baino lehen.

**3.6.** Irisgarritasun iraunkorreko planak eta segurtasun planak prestatzea ikastetxeetara iristeko.

**3.7.** Ikasle guztien sarbidea bermatzea, familia-errentaren arabera, ikasliburu guztien doakotasun barne behar dutenentzat, familiei aurrez fidantzarik eskatu gabe.

**3.8.** Ikastetxeen, NUPen eta irakasleen arteko harreman egonkorra etapa guztietan koordinatzea.

**3.9.** Maila guztietan hezkidetzaren alde egitea, jendarte ez-sexista baterantz jotze aldera.

**3.10.** Hezkuntza-sisteman behar bezalako politikak garatzea, bikaintasun ahaztu gabe, baina nagusiki berdintasuna eta gizarte kohesioa sendotzea lantze aldera.

**3.11.** Gure errealitatera egokitutako curriculum berezkoak prestatzea.

**4. Kalitatezko hezkuntza barne-hartzailearen** alde egitea, eskolak egiazki prestakuntza eta heziketa eginkizunak bete ditzan, eta ikastetxeei autonomia handiagoa eta baliabide gehiago emanaz, hezkuntza molde hori bermatu ahal izateko:

**4.1.** Sare publikoa hezkuntza-sistemaren ardatz eta bizkarrezurtzat jotzea, laikotasun barne-hartzailea oinarri harturik.

**4.2.** Administrazioak bermatuko du sare pribatu itunduak bete ditzala itunetan ezarritako betebeharrak oro, diru publikoen bidez finantzatutako zerbitzu publiko bat eskaintzen duen bitartekaria denez gero.

**4.3.** Bereziki aintzat hartzea, sare pribatu itunduaren barnean, gurasoek bultzaturiko gizarte ekimenak, ikastolak adibidez, hirugarren bidea baitira eredu publikoaren eta pribatuaren artean, eta egungo itunez gain, eremu ez euskalduneko ikastolen jantokiaren eta garraioaren kostua finantzatzea.

**4.4.** Hezkuntza-berrikuntza sustatzea, bereziki Europako finantzaketa duten

## HEZKUNTZA

proiektuetan parte hartzea.

**4.5.** Ikastetxeen baliabideak handitzea, hezkuntza-premia berezientzako erantzun berariazkoa hobetze aldera.

**4.6.** Ikasleen dibertsitatea errespetatzea, kulturartekotasuna ardatz harturik, eta plan proaktiboak eta prebentiboak ezartzea arrazakeriaren, bazterkeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko, bai eta berdinen arteko indarkeriaren aurka ere. Jatorri immigrantea duten ikasleek kopurua ikastetxe guztietan orekatzea, eta holako ikasleentzat, eskolaz kanpoko ekintzak ezartzea, beren ama hizkuntza eta jatorrizko kultura ikas ditzaten, eta haien familiei ere gureak ikasteko aukera ematea.

**4.7.** Ikastetxeak osasun eta gizarte lan arloko profesionalez hornitzea, jende pobreeneko auzoak lehenetsiz.

**4.8.** Herriko eskola unitarioak eta landa-eskolak mantentzea.

**4.9.** Eskolaz kanpoko ekintzen eskaintza handitzea.

**4.10.** Halaber, garraio bekak derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzarentzat ezartzea.

**5. Hizkuntza-ereduei** dagokienez, hizkuntzak ikasteari buruzko politika Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoaren baitan sartzearen aldekoa da Geroa Bai. Europako Batzordeak onetsitako markoa da, eta kultura-aniztasunean txertaturiko eleaniztasuna du xede:

**5.1. Berezko hizkuntzei** dagokienez, legez dauden hizkuntza-ereduak eguneratu eta birformulatzea. D eredu eskaria dagoen eremu guztietara zabaltzea, ikasleak euskalduntzeko eraginkorra dela frogatua baitago, ikasleek 16 urtetan MERLaren B2 maila lor dezan hala euskaraz nola gaztelaniaz. A ereduari dagokionez, gero eta ikasle gehiagok aukera dezatela bermatzea, euskarara hurbiltzeko, oinarritzko nozioak ikasteko eta hizkuntza gaitasunerako gutxienezko eredu baita, MERLaren B1 mailara iristeko. Sarean lan eginez, eskola beste esparru batzuekin koordinatzea, hizkuntza berezko eta ofizialen erabilera normala bermatze aldera.

**5.2. Atzerriko hizkuntzei** dagokienez, eta PAI eztabaidagarriaren aurrean, ingelesa irakasteko programa adostua ezartzea Haur Hezkuntzatik DBHko 4. mailaraino, eta derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntzan ere komunikaziorako oinarritzko trebezia ezartzea helburu gisa harreman informaletan elkar ulertze aldera, eta haietako batean B1 mailara iristea 16 urtetan. Lehen eta bigarren hezkuntzaren arteko koordinazioa hobetzea hizkuntzen irakaskuntzan.

**6. Proposamen partzialei** dagokienez:

**6.1. Haur Hezkuntzan**, administrazioak 0-3 urte zikloa finantzatzea, kalitatezko estandarrak erabiliz eta legez arautuz, eta era berean, eskola-ordutegia baino lehen, haurrak ikastetxeetan hartzea.

**6.2. Lehen Hezkuntzan**, derrigorrezko lehen etapa honek integratiorako aldia izan behar du, ingurunean dagoen desberdintasunak ahalik eta eraginik txikiena sor dezan haurrengan.

**6.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan**, eskaintza handiagoa ezartzea ibilbideetan aukerazkoetan; tituluaren baliokidetasuna finkatzea edozein ikasketatan sartzeko, eta etapa bukatzean, LHako aterabideak zein diren jakinaraztea.

**6.4. Batxilergoan**, asteko 30 eskola-orduak ezartzea D ereduan, beste eredueta parekatuz, eta Arte Eszenikoen, Musika eta Dantza Batxilergoa mantenduz.

**6.5. Lanbide Heziketan**, Europako testuinguruan erreferentziazko LH lortzearen aldeko apustua egitea, enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzea xede duen eredu ekonomikoa lortzeko gakoa baita. Eskaintza birdiseinatzea; horretarako, ordezkartzeko mahaia bat eratzea, enpresek presentzia aktiboa izanen dutela, eta gorabidean dagoen eskarira egokitzea. Titulazio berriak ezartzea, I+G+B; inbertsioak egitea instalazioak berritzeko, eta Nafarroa osora zabaltzea, baita euskaraz ere. Informazio-kanpainak LH sustatzeko, eta ikastetxe integralak sortzea. Ekintzailatza sustatzea. Ahalik eta gehien aritzea elkarlanean enpleguko politika aktiboez arduratzen den Departamentuarekin, enplegatuentzako eta langabeentzako prestakuntza-jarduera ez arautuetan baliabideak ahalik eta hobekien erabiltzeko.

**6.6. Unibertsitatean**, behar den finantzaketa bermatzea, NUPeko irakaskuntzak eta ikerketak garapen egokia izan dezaten; titulazioak kalitatezko goi-mailako irakaskuntzara egokitzea, eta unibertsitatearen eta sektore publikoaren arteko ikerketaren alde egitea. NUPeko Estatutuetan aurreikusita dagoen hizkuntza-plangintza garatzea, eta hizkuntzen irakaskuntzari erantzutea. Tuterako Campusa Erriberako aukera eta beharretara egokitzea. Mugaz gaindiko unibertsitateen arteko akordioak bultzatzea. Nafarroako Unibertsitateak finantzaketa jasotzen duenean Foru Administrazioetik, NUPekoak bezalako kontrol zientifiko eta finantzario berbereko proiektuetara bideratuko da. Medikuntza Fakultatea NUPen ezartzeko prozesua abiaraztea.

**6.7. Helduen prestakuntzan**, derrigorrezkoa baino hezkuntza-maila altuagoa duen ehunekoa handitzea 15 eta 64 urte arteko biztanleen artean; etorkinak



## HEZKUNTZA

eta baliabide gutxiko jendea gizarteratu daitezela sustatzea, eta berezko eskola-egutegi egokitua ezartzea. Pedagogia-metodo egokiak garatzea, eta eremu guztietan ikasketak eskaintzea.

**6.8. Hezkuntza Berezian,** ikastetxeak eta irakaskuntzak irisgarriak egitea, eta behar adina baliabidez hornitzea.

**6.9. Irakaskuntzan musikaletan,** irakasleen gaitasuna bilatzea. Bekak eskaintzea, ikasten jarraitu nahi duten ikasleek horretarako aukera izan dezaten.

**6.10. Irakasleak aintzat hartzea;** hasierako prestakuntza eta irakasleak aukeratzeko prozesuak berritzea. Prestakuntza iraunkorra. Plantilla gaztetzea, eskola-karga txikiagoa, eta irakasle burtsa bat sortzea, ordezkapen laburretarako. Lan-baldintza duin eta egonkorrak bermatzea.

# ENPLEGUA



**GEROABAI**

**Oinarri Politikoak**

## **ENPLEGUA**

Larrialdi betean gaude; horra hor langabezia maila handia eta kalitate apaleko enpleguaren hazkundera, horren adierazgarri. Langabezia maila handi horrek eta azpienplegu maila handi horrek eragin dute gizarte kanporaketa gero eta handiagoa, eta horren ondorioz, gure jendartearen kohesioa gero eta urratuagoa dago. Zalantzarik gabe, hori guztia zuzentzea dugu lehentasun.

Ez dugu orain aztertuko zerk eragin duen erdi-erditik jo gaituen krisi sakon hau, baina komeni da behintzat adieraztea zein diren krisia eragin duten zergatirik garrantzitsuenak, hala nola ekoizpen moldea eraikuntzaren mendean neurrigabe egotea, maila teknologiko ertain-apala, gorabidean dauden herrialdeak merkatuan indarrez sartu izana, barne kontsumoaren ahuldadea, finantza-merkatuaren eta finantza publikoen krisia, indarrean zebilen energia berriztagarrien sektorea hondoratu izana, tarifa-defizitaren gaineko politikek eraginda, Gobernu zentralak eta foru gobernua gaitasunik eza depresio-zikloari aurrea hartzeko eta ausardiaz aurre egiteko, edota inbertsio faraonikoko edo hondagarriak aukeratzeko tenturik eza.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO ENPLEGUA NAHI DUGUN**

- Langabezia ez du lege ekonomikoen determinismoitsuak sortu, erabaki eta politika okerren ondorioa baita, eta erabaki eta politika horietako aunitzek tradizio luzea dute gurean.
- Aukerarik gabeko langabeziak larriki erasaten dio jendearen duintasunari, pobrezia eta bazterkeriara bultzatzen ditu langabeak, eta era berean, sufrimendua eragiten du pertsonengan, eta pentsaezinezko ondorioak sor ditzakeen gizarte haustura larria.
- Langabeziaren aurka borrokatzea eta behar diren baldintza sortzea garapen ekonomikorako eta enplegua sortzeko, betebeharrak lehena da eta erabateko lehentasuna botere publikoentzat.
- Nafarroari buruzko ikuspegi estrategiko partekatu bat finkatu beharra dago, oinarri harturik giza garapen iraunkorra: hots, lehiakortasun ekonomikoa, gizarte eta lurralde kohesioa, eta gure ingurumena ongi eta orekaz zaintzea. Funtsezko sektore estrategikoak: industria aurreratua, energia berriztagarria eta eraginkortasuna, osasuna eta horri lotuta dauden zerbitzuak, lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaigintza, turismo integrala (aisia, ingurumena eta kultura), eta teknologiak nahiz zerbitzu aurreratuak zeharkakotasunez erabiltzea.

### **LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK**

Arazoa hain da handia eta konplexua, non huraxe konpontzea ez baita lanbide

erraza, eta berebiziko ahalegin etengabea beharko baita.

#### **Epe erdira/luzera:**

- Eskumen guztiak hartzea lan-ikuskaritzan eta enpleguko politika pasiboan kudeaketan. Hitz batez, Gizarte Segurantzaren kudeaketa.
- Lan harremanetarako esparru propioa bultzatzea, egiazko gizarte elkarrizketa eraikitzea abiaburu harturik; elkarrizketa horrek barne-hartzailea izan behar du, eta gizarte eragile guztiak parte hartu behar dute. Hau da, egungo bazterketa eta kanporaketa amaitu behar dira.
- Gogoeta eta etengabeko hobekuntza enplegu politika aktiboei esleitutako diruen kudeaketan, hala lehentasunak zehaztean (adibidez, prestakuntzarako diruen kudeaketan) nola eraginkortasunik nahiz eragingarritasunik onenaren bilaketan. Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Kontseilu Eragileko estatutuak aldatzea, zertarako eta, adostasunik ez badago, eta egokitzat jotzen den kontsula aldiaren ondotik, Gobernuak erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezan.
- Behar diren egokitzapenak eginda, inbertsioak sustatzeko eta finantzaketa eskuratzeko lerroak sustatzea hala epe luzera nola zirkulatzailea.
- Konpromiso estrategikoa eta aurrekontuen ingurukoa honako arlo hauek sustatzeko: autoenpleguaren balioak, arriskuak hartzea eta ekintzailatza, adibidez, eskolatik bertatik sustatzeko.
- Enpresan kultura berria sustatuko duten ekimenak bultzatzea. Honatx kultura berriaren ezaugarriak: gardentasuna, zuzendaritzaren eta plantillaren arteko konfiantza, kalitatezko enplegua sortu eta finkatzea, eta sortzen diren soberakinen inguruko errenta itunak.
- Konpromiso estrategikoa eta aurrekontuen ingurukoa I+G+b arloa sustatzeko, eta oinarritzko ikerketarako esparru bat gordeta, indar handiagoa egin beharra enpresaren lehiakortasunean eta kalitatezko enpleguaren sorreran zuzeneko eragina duten jarduketetan.
- Konpromiso estrategikoa eta aurrekontuen ingurukoa Lanbide Heziketarekin. Lankide Heziketak, izan ere, funtsezko eginkizuna beteko du gure etorkizunean, eta lagungarria izanen da nafar askok enplegu egonkorra eta kalitatezkoa izan dezaten, eta era berean, gure enpresak lehen lerroan egoteko gauza izan daitezten.
- Enpresa-sarearekiko harremanak:
  - o Erabateko laguntza nafar enpresei, handiei nahiz ETEei, hots, erabakimena lurraldean mantentzearen aldeko apustua egiten dutenei.

- o Erabateko laguntza gizarte ekonomiako enpresei.
- o Harreman leiala eta bientzat onuragarria Nafarroan dauden multinazionalekin.
- o Ekintza proaktiboa inbertsio berriak erakartzeko, hots, Nafarroan enplegu egonkorra eta kalitatezkoa sortzeko asmoa dutenak erakartzeko.
- Konpromiso estrategikoa eta aurrekontuen ingurukoa gure enpresak nazioartera ateratzearekin, enpresen arteko elkarlana sustatuz, berez behar adinako tamainarik ez dutenek nazioartean lan egin dezaten.
- Nafarroa Europa polizentrikoaren lehentasunezko lekuan kokatzea, hau da, Nafarroa-EAE-Akitania bezalako esparruak bultzatzen dituzten esparruetan.
- Aurreko atalen testuinguruan, auza lurraldeekin -EAErekin, batez ere- elkarlanean aritzeko ekimen guztiak aztertzea, hots, alde guztientzat onuragarriak izan daitezkeen ekimenak.
- Toki garapenerako egiturak sendotzea, hala nola CEDERNA-GARALUR, EDER, TEDER eta Erdialdea, haien arteko eta Nafarroako Gobernuarekiko elkarlana sustatuz, landa garapena bultzatze aldera, funtsezko hiru zutabe hauetan oinarrituta:
  - o Autonomoak eta mikroeteak
  - o Tokian tokiko baliabideak eta produktuen merkaturatzea sendotzea.
  - o Ekintzailatza sustatzeko azpiegiturak bultzatzea.

#### **Epe laburrera:**

Epe laburreko jarduketan xedea ez da izan arazo konpontzea, baina bai ahal den neurrian zenbakiak zuzentzea eta, batez ere, lagungarriak izan daitezke herritarren aldatzea aldatzen hasteko eta, aldi berean, erronkei denon artean ekiteko gauza garela erakusteko.

Geroa Baik bigarren neurri sorta honetara bideratu du bere ahalegina ordezkari duen erakundeetan eta, beste batzuekin batera, gure hauteskunde programan txertatu ditugu.

#### **Geroa Baik Nafarroako Parlamentuan legealdi honetan proposatu dituen neurriak:**

**1.** Zorpetze gaitasunaren igoeraren % 75 I+G+b jardueretara bideratzea, gure enpresa txiki eta ertainak aholkatzeko eta kudeatzen laguntzeko, ETEak nazioartera ateratzeko, zailtasunak dituzten enpresa bideragarriak abiarazteko, eta eraikin publikoak nahiz pribatuak zaharberritzeko, irisgarriagoak izan daitezten eta energia eraginkortasunez erabil dezaten.

## ENPLEGUA

**2.** Programa berezia (arazoak arintzekoa eta denboraldi baterakoa), urtebetez lanpostuak sortzeko. Programa hau finantzatzeko, %0,5 doituko da Departamentu bakoitzaren aurrekontuan. Zorpetze gaitasunaren igoeraren gainerako %25 behar gorrian dauden langabeentzat izanen da (kanporaketa arriskuan daudenak, kide guztiak langabezia dituzten familiak, eta karga familiarak dituzten iraupen luzeko langabeak) eta, era berean, zati batean gazteen lehen aukerarentzat.

**3.** Sodenaren eta finantza-entitateen arteko akordioa aldatzea BEI ildoaren esparruaren barnean, Sodenak batez besteko arriskuaren % 50 bere hain har dezan finantza-entitate bakoitzeko, eta % 75era arte eragiketa zehatz batean.

**4.** Abalen lerroak irekitzea ETEen zirkulatzailarentzat 150 m arte.

**5.** Nekazaritzari eta nekazaritzako elikagaigintzari buruzko azterlan bat egitea, inbertsio aukerak zehazteko eta, era berean, Nafarroan diren azpiegiturak ahalik eta hobekien erabiltzeko.

**6.** Arauek ezarritako xedapenak berrikustea nekazaritzako elikagaien merkaturatzeari dagokionez, ekoizleen zuzeneko salmenta egitea sustatze aldera.

**7.** Administrazioan lana banatzeko aukerei buruzko azterlan bat egitea (barne plangintza hobetzea, lanaldiak doitu edo murriztea, aparteko orduak kentzea, programa boluntarioak, txandakatze kontratuen bidezko aurre-jubilazioak), bai eta hura nola ezarri ere; hartara, 39/2014 Foru Dekretua aldatzea, Funtzio Publikoaren Mahaiko sindikatuarekin batera.

### Dauden enpresak:

**1.** Gure ETEen negozioa sustatzea eta ezagutzea. ETEek aurrez (ez guztiek, baizik eta erregelamendu bidez zehazten direnak) gogoeta estrategiko bat aurkeztu beharko dute formatu estandarizatu batean Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzak jasotzeko. Aldi berean, aipatu azterlana diruz laguntzeko programa bat ezartzea. Gogoeta estrategikoan nazioartera atzeratzearen inguruko hausnarketa bat egin beharko da nahitaez.

**2.** Anel-ekin bat, alerta goiztiarreko sistema zailtasunak dituzten enpresentzat. Hau da, Gobernuak garaiz jakin dezala, mugitu ahal izan dadin.

### Lan aholkularitza:

**1.** Nafarroako Enplegu Zerbitzuak konpromisoa har dezala, urtero banan-banan 10.000 langaberekin harremanetan sartzeko (gaur egun, 5.000 dira).

**2.** Enpresek ahalik eta gehien erabil dezatela eskariaren arabeko prestakuntza-sistema.

**3.** Gogoeta eitea langabeentzako prestakuntza ekintzen planteamenduz (beharrak, orientazioa, helburua, ekintzak, metodologia, aurrekontua). Ez egitea parte-hartzaileei ezagutzak eman bai baina enplegugarritasuna hobetzen ez duten ikastaroak.

**4.** Lanbide Heziketen institutuen sare publikoa txertatzea bai laneratzeko prestakuntzan bai prestakuntza iraunkorrean.

### Kontratazioa:

**1.** Gazte langabeentzako Europako dirua Nafarroatik zuzenean ziurtatzea.

### Lan harremanak:

**1.** Errenta itunentzako pizgarri fiskalak: dedukzioa sozietateen gaineko zergan beren enplegatuekin (zuzendaritza kenduta) baldintza jakin batzuetan emaitzak banatzen dituzten enpresentzat eta, era berean, aldian behin, enplegatuei informazioa ematen dietenentzat enpresaren martxaz, ikuspegi estrategikoaz eta negozioaren garapenaz.

**2.** Pizgarri gehigarriak aztertzea lana banatzeko sistemaren bat hitzartzen duten enpresentzat.

**3.** Nafarroan lana banatzeari buruzko biltzar bat antolatzea, aditu ospetsuek beren ekarpenak egin ditzaten. Esperientzia arrakastatsuak zabaltzea, eta gogoeta egitea araudi esparru egokia sortzeko. Horretarako, NUPeko Gizarte Laneko Departamentura, Nafarroako Enplegu Zerbitzura eta beste eragile interesatu batzuegana joko da.

### Gizarte ekonomia:

**1.** Kontu-sail zabalgarritzat jotzea krisian dauden enpresak edo ondorengotza arazoak dituzten enpresak gizarte ekonomiako enpresa bihurtze aldera.

**2.** Ahalik eta gehien azkartzea (ANELen iradokizunekin bat) zerbitzuak mendetasunean daudenei legez ematea pizgarri bidez bultzatzen duten neurriak, ekonomia sozialeko enpresak sortuz.

**3.** Ekonomia sozialeko enpresak sortzeari buruzko prestakuntza ematea.

### Inbertsioa/Finantzaketa:

**1.** Nafarroako enpresa handi eta ertainak bisitatzeko programa bat ezartzea, inbertsio aukerak atzemate aldera (produktu berriak, merkatu berriak, produktu-merkatu berriak), zein eta une honetan krisiaren eraginez alde batera utzi diren inbertsioak, eta inbertsio horiek ebaluatzeko alternatibak baloratzea, eta hala bada, praktikara eramatea, betiere enpresarekin elkar hartuta.



## ENPLEGUA

**2.** Unibertsitatez eta zentro teknologikoez gain, enpresak sortzea bultzatu eta laguntzeko programa bat (spin off) ezartzea lanbide heziketako goi-mailako ikastetxeetan. Urteko helburuak finkatzea.

**3.** Mikrokredituak ezartzea proiektu berrientzat.

**4.** Sektore adierazgarrienetako (autogintza, energia berriztagarriak, osasuna, IKTak) ordezkariak hartzea (clusterrak, enpresa-elkarteak) urtean behin Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuan, haien jarduketak lehen eskutik ezagutzeko, haien sektorea zertan den jakiteko, eta haien aurreikuspen eta behar nabarmenen berri izateko.

**5.** Ahalegin handiagoa egitea atzerriko inbertsioa erakartzeko.

**6.** Enpresentzako diru-laguntzak emateko sistemak hobetzea, gardenagoak eta berdinagoak izan daitezen.

### **I+G+b:**

**1.** 25 gazte ikertzaile atzerrian prestatzeko programa. Gazteek konpromisoa hartuko dute, ondoren 5 urtez Nafarroan lan egiteko, aldezturik konpromisoa hartutako zentro edo enpresetan.

### **Nazioartera ateratzea eta elkarlana:**

**2.** 100 gazte tituludun (LADE, Marketin, Merkataritza Zuzendaritza edo antzekoak) atzerrian prestatzeko programa. Gazteek konpromisoa hartuko dute, ondoren erabakimena Nafarroan duten enpresetan 5 urtez lan egiteko; gazteak kontratatu nahi dituzten enpresetan, hain zuzen.

**3.** Elkarlanezko ekimenak sustatu eta laguntzeko programa (fusioak, xurgatzeak, merkataritza plan bateratuak, nazioartera ateratzeko plan bateratuak, erosketak zentral partekatuak...). Arlo honetan, mugaz gaindiko elkarlana pizgarri bidez bultzatzea ekimen publikoko eta pribatuko proiektuetan.

**4.** Unibertsitate ikasleak trukatzeko programa, gorabidean ari diren herrialde handietako ikasleak gure unibertsitateetara etor daitezen (txinatarrak, hinduak, brasildarrak, errusiarrak, mexikarrak), lehentasunez enpresak kudeatzeko arloarekin lotutakoak (etorkizuneko enpresa-zuzendariak), Nafarroaren ezagutza susta dezaten eta, gisa horretan, enpresen arteko elkarlanerako aukera berriak, eta etorkizunean inbertsioak egiteko aukera Nafarroan.

**5.** Berriazko ekintzak planifikatu eta ezartzea, gorabidean ari diren herrialde handiak ezagutzeko eta haietan egoteko.

### **Apustuak sektoreetan eta azpiegituretan:**

**6.** Lizitazio maila minimo bat bermatzea eraikuntza kontratuetan eta azpiegituretan

kontserbatzeko kontratuetan, gutxienezko enplegu maila bat bermatze aldera.

**7.** CENERko Bioerregaien Zentroak parte harturik, ahalik eta lasterren txosten bat prestatzea, biomasaren garapen aukerak aztertze eta lurraldean enpleguari dagokionez zer eragin izanen lukeen jakiteko.

**8.** Zeharkako plataforma bat sortzeko aukera aztertzea, Nafarroan dagoen turismo eskaintza guztia jasotze aldera eta sektoreak xede-merkatuetan posizio hobea izan dezan.

**9.** Ahalik eta lasterren txosten bat egitea Nafarroak telekomunikazioen azpiegituren arloan duen posizioa lehiakorraz. Bere kasuan, neurri zuzentzaileak hartzea.


**10.** Ahalik eta lasterren alternatiba zehatzei buruzko azterlan bat aurkeztea, Iruñeko aireportua ahalik eta gehien erabil dadin, egun gutxiegi erabiltzen baita: a) Zuzeneko lotura Frankfurt eta Londresekin prezio lehiakorretan; b) Aireportuekin fly and bus akordioak egitea (adibidez, Bilbo, Zaragoza) hegaldi jakin batzuetarako, paketatua eta itxia eskaini dadin; c) Aurrekoari lotuta, Iruñeak IATA kalifikazio eskura dezala, nazioarteko aire-mapan ager dadin.

**11.** SODENAREN hasierako zentzuari eustea; hau da, arrisku kapitaleko enpresa publikoa, zailtasunean dauden enpresak salbatzeko prozesuetan sartu gabe. Holako enpresak berriaz tratatzeko bide bat ezarri beharko da.





# AUTOGOBERNUA





## AUTOGOBERNUA

Estatuak beti izan du halako jarrera zentripetua eta horren ondorio da Nafarroari zuzenbidez dagozkion autogobernu-tresnak eman nahi ez izatea edota oinarrizko legeen bidez Nafarroak bere gain hartuak dituen eskumenak ezabatu nahi izatea. Hori gutxi delakoan, azken urteotan jarrera hori izugarri areagotu da, PPren gehiengo osoak Estatu birzentralizatzeko saiakera handia egin baitu, alderdi zentralistek txaloturik (UPyD, kasu), eta UPNren nahiz PSNren jarrera epelak lagundurik.

Estatu mailako indarrek egungo ekonomia eta finantza krisia baliatu dute, gure autogobernu gaitasunari erasorik handiena egiteko, Konstituzioaren 135. artikulua berehalako batean erreformatuz, eta aurrekontu egonkortzeari eta finantzarn orekari buruzko lege guztien bidez. Horren ondorioz, Nafarroako eskumen eskusiboko arlo batzuk mugatu dira (hala nola enplegatu publikoak edo toki administrazioa), Estatuak behin eta berriz errekurtsioak jarri ditu Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeen aurka, edota berrikitan Auzitegi Konstituzionalak emandako epaiak, Estatuak errekurtsioak jarri ondoren, zuzeneko zerga berezkoak arautzeko gaitasuna zalantzan jarri dutenak.

## **HONA HEMEN ZER-NOLAKO AUTOGOBERNUA NAHI DUGUN**

### **Autogobernua, etorkizuneko proiektu gisa**

**Geroa Baik** baldintzarik gabeko ahalmen konstituziogilea aitortzen die nafar herritarrei, bai eta herritarrek nahi bezalako erregimen politikoa askatasunez ezartzeko eskubidea ere. Aitortzen die, orobat, Espainiako Estatuarekin erakunde bateratuak berdinen artean negoziatzeko eskubidea

Nafarroa subjektu gisa; ez, ordea, objektu gisa. Horra hor, zalantzarik gabe, Geroa bairen ezaugarrietako bat. Azalez esaldi xumea bada ere, mamiz erro-errotik da demokratikoa. Nafarroan ez zaie herritarrei galdetu zer ziren eta nolako identitate-sentimendua zuten, baizik eta jendeari esan izan diote hauxe da zure identitatea, jendearen iritzia kontuan hartu gabe. Horien aurrean, Nafarroa subjektua dela esaten dugunok erabakitze eskubidea aldarrikatzen dugu nafarrentzat, beren etorkizuneko proiektua irudikatzeko eskubidea eta proiektu hori eraikitzearen aldeko eskubidea. Batzuek esaten digute zer garen eta zer izan behar dugun etorkizunean. Nafarroa subjektua dela esaten dugunok, ordea, gizabanako bakoitza bere buruaren jabe dela aldarrikatzen dugu, eta gure irudikoz gizabanako bakoitzaren borondatearen baturak markatuko du zer bideri jarraitu

Argi dugu politikan ez dela aski deitoratzea aspaldi-aspaldiko garaietan galdutakoa. Horrela, egungo egoera aldatzeko, Nafarroan eta Nafarroak pentsatutako etorkizuneko proiektu baten bidez egin behar zaio aurre garatzeko,

## AUTOGOBERNUA

zertarako eta, bereziki, Euskal Herriko gainerako lurraldeekin arloz arlo (kulturan, politikagintzan, ekonomian, gizartean) zubigintzan aritzeko, betiere Europa helburutzat eta garapen-esparrutzat hartuta. Gure Urrezko Garaia ez baitago iragan galdu batean, eraikitzeko dagoen etorkizunean baizik.

### Autogobernua, egiazko politika egiteko tresna

Baina Geroa Bain argi dugu badirela gainera berehalako batean jorratu beharreko premiazko lanak (denbora luzea daramagu horretan, egia esan), gure autogobernua egunez egun babestu behar baitugu tinko. Horregatik, premiazkoa da:

- Hemen eta Madrilen Nafarroako autogobernua defenditzea, alderdi handien arteko akordioei aurre egiteko. Izan ere, eraso etengabeen bitartez, autogobernua murrizten ari dira, Estatu birzentralizatzeko saiakera bizian ari baitira.
- Nafarroako autogobernua defenditzea gure tresnarik onena da politika zehatzak diseinatu, garatu eta aplikatzeko, gizartearen egiazko arazoak konpontze aldera. Autogobernuaz mintza garenean, bi aldeko ereduaz ari gara, eta foruak bere osoan itzultzea du oinarri.
- Unean dugun zorraren arabera, horren estrukturan arabera eta baliabideak sortzeko dugun gaitasunaren arabera, jarduketa politikoa Nafarroaren irudi ahalik eta indartsuena eta egonkorrena ematera bideratu beharko dugu. Konfiantza irudi horrek emanen dio Nafarroari finantza-independentsia nahikoa eta hori, hain zuzen, izanen da autogobernua garatzeko ezinbesteko baldintza, beste inoren esku ez egoteko baldintza.

### Proposamena: itun politiko berria estatuarekin

Geroa Baik, horrela, ez dio ezein agertokiri uko egiten, eta Estatuarekiko itun berri bat aldeztu du, baina aurretik bigarren trantsizio bat eginda, Nafarroako foru-araubidearen egiazko demokratizazio-prozesu bati ekite aldera, hots, prozesu konstituziogile bati ekiteko alde guztietatik begira. Geroa Bai Amejoramendua edo Foru Hobetzea erreformatzearen aldekoa da, abagune politikoak horretarako aukera ematen duenean. Estatuarekiko itun politiko berriak, gutxienez ere, honako hiru baldintza hauek bete beharko lituzke:

- Nafarroa herritarrek askatasunez erabakitzen duten autogobernu-mailez hornitzea, eta nafar herritarrei botere konstituziogilea aitortzea,
- Alderdi guztien artean adostea, Trantsizioan ezarritako bazterketarik gabe
- eta Estatuarekiko negoziazioaren emaitza herri-erreferendum bidez berrestea.

## LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

Estatuarekiko itun politiko berriak, gutxienez ere, osagai hauek izan beharko ditu:

- Nafar guztiek dute haien etorkizunari buruz kontsultatuak izateko eskubidea, eta erabateko gaitasuna dute kontsulta demokratikoak erreferendum bidez arautzeko eta kudeatzeko.
- Erabateko autonomia, autogobernu politikoari dagozkion erakundeak antolatzeko, eta Estatuak oinarritzko legeriaren bidez ezarritako mugak kentzea.
- Konstituzioaren 150.2 artikuluan aurreikusitako transferentziak edo transferentzia-eskuordetzeak nafar eskumen-esparruaren alde erabiltzea, oinarritzko legediaren kontzeptua zehaztuz, horren bitarteko gehiegikeriak ekiditeko.
- Estatuarekin aldebiko berme-sistema bat ezartzea eta, era berean, funtsezko ebazpen-organotan parte hartzeko bideak ezartzea; Auzitegi Konstituzionalean, esaterako.
- Nafarroak bere botere judiziala eratzea, botere horretan instantzia judizial guztiak agortzeko, bazter utzi gabe Auzitegi Gorenean kasazio-errekurtsioa, doktrina batzeko.
- Gizarte segurantzaren ekonomia-araubidearen kudeaketa autonomia, eta erabateko eskumena lan-harremanetan, aurreikuspenen, ongizatean eta Gizarte Segurantzaren.
- Nafarroak erabateko eskumena izatea kulturan, hizkuntzan, hezkuntzan eta ikur eta ezaugarrien arloan.
- Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza ofizialtzat aitortzea.
- Nafarroak bere ahotsa Europan izatea, bai eta nazioarteko harremanetan ere. Horrez gain, Nafarroak Europako erakundeetan zuzeneko parte-hartzea izatea Nafarroak bere gain dituen eskumenen alde eta Nafarroako nortasunaren alde.
- Nafarroako herritarrek Euskal Autonomia Erkideagoarekin beren borondatez erabakitzen dituzten loturak ezartzea.
- Nafarroa Behereko erakundeekiko harremanak sakontzea, Nafarroa Garaiko eta Behereko herritarren artean mendez mendez gizarte eta kultur arloan izan diren harremanak berreskuratzeko eta sendotzeko.
- Nafarroa, Akitania eta EAEn arteko Lankidetzaren Protokoloa berreskuratzeko

## AUTOGOBERNUA

aldarrikatzen du (UPNko Gobernuak ezabatu zuen huraxe bera), Nafarroak Europan aukera gehiago eta hobeak izan ditzan; izan ere, aldatu egin baitira ekoizpen, banaketa eta kontsumo sistemak, eta areagotu egin dira nazioz gaindiko harremanak. Horrek eraginda, beharrezkoa da auzoko eskualdeen artean politika bateratuak egitea.

- Europako eskualde mailako beste elkarte molde batzuk garatzea, Nafarroarentzako interesekoak badira; esaterako, Europa Atlantikoaren Hegoaldeko Erregioen Konfederazioa (SEA) eta Pirinioetako Lan Erkidegoa, 1983an sortutakoa.

- Baionako Ituna ahalik eta gehien garatzea. Espainiak eta Frantziak 1995ean sinatutako ituna da, Frantziako eta Espainiako lurralde-entitateen arteko mugaz gaindiko lankidetzaz errazte eta sustatze aldera, eta gizarte zibilak itunak eskaintzen dituen aukerak balia ditzan bultzatze aldera.

Eta horri guztiorri honakoa ere erantsi beharko zaio:

- LOFCA legea erreformatzea (Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Lege Organikoa) eta Hitzarmena eta Foru Hobetzea aldarrikatzea Nafarroako tributu araubidea arautzen duten arau gisa.

- Autogobernua tinko defenditzea, eta era berean, Foru Hobetzea bete eta garatu dadila irmo defenditzea.

- Nafarroak oraindik hartu ez dituen transferentziak aldarrikatzea; batez ere, krisi ekonomikoaren eta langabeziaren aurka borrokatzeko politika aktiboak ahalbidetzen dituztenak:

- o Gizarte Segurantzaren transferentzia erabat uztea Nafarroaren eskuetan, baita haren araubide ekonomikoa kudeatzea ere (Foru Hobetzearen 54. artikulua).

- o Erabateko transferentzia I+G+b arloan (Foru Hobetzearen 44.7. artikulua).

- o Erabateko transferentzia lan arloan, enpleguaren politika aktibo eta pasiboak barne, bai eta lan ikuskaritza ere (Foru Hobetzearen 58.1.b artikulua).

# FISKALITATEA





## FISKALITATEA

Fiskalitateari buruzko politikak zehaztea funtsezkoa da Gobernu ekintzaren diseinuan, bi arrazoi direla medio: batetik, fiskalitateak heldu direlako diru-sarrera publiko gehien-gehienak, eta bestetik, fiskalitateak ezartzen duelako batzuen eta besteen arteko ahaleginak banatzeko modua.

Zerga bidezko diru-bilketak, nagusiki, bi atal handi ditu, eta gutxi gorabehera, bakoitza diru-sarreraren erdia da: zuzeneko zergak eta zeharkako zergak.

### **Zuzeneko zergak:**

- Gure foru erregimenarekin bat, Nafarroak aitortua du zuzeneko zergarik garrantzitsuenak arautzeko eskumena (Errenta, Sozietateak, Ondarea, Ondorengotzak eta Dohaintzak), eta presio globala Estatuaren gainerakoan dagoenaren baliokidea da. Zerga hitzartuak dira, Hitzarmen Ekonomikoan aurreikusita daudelako. 29/2014 Foru Lege berriak (UPNk, PSKk eta PPK onetsia), zerga horien alderdi nabarmen batzuk aldatu ditu, eta Geroa Baik proposatutakoaren aldean, lege onetsiak nabarmen murriztuko du diru-bilketa, eta gaur egun, guztiz beharrezkoa zaizkigu baliabide horiek, ongizate estatuari eutsi nahi bazaio eta suspertze ekonomikoaren alde lan egin nahi bada. Nafarroako Ogasunak berak esan du lege berriaren ondorioz 100 milioitik gora euro gutxiago bilduko direla, Geroa Baik proposatutakoa onetsi izatera lortuko litzatekeen diru-bilketaren aldean.

- Estatuak, Auzitegi Konstituzionalaren bidez, zalantzan jarri du Nafarroak zuzeneko zergak jartzeko duen gaitasuna. Auzitegi horrek, izan ere, bi epai eman ditu azalera handien gaineko zergari buruz eta energia elektrikoa ekoiztearen gaineko zergari buruz. Berrikitan Hitzarmen Ekonomikoan egindako aldaketaren xedea da (bultzatzaileen esanetan) mehatxu horiek eragozte. Geroa Bain zalantzak ditugu horren gainean, aldaketa onetsia ikusita, beldur gara ez ote zaizkion bestelako erasoak egingen Nafarroak bere zerga zuzenak arautzeko duen gaitasunari, Estatuarekin aurrez hitzartu ez diren arloetan. Hori saiheste aldera, Geroa Baik LOFCA legea (Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Lege Organikoa) erreformatzeko proposamena aurkeztu du Diputatuen Kongresuan, lege hori erabili baititu argudiotzat Auzitegi Konstituzionalak epaiak emateko.

### **Zeharkako zergak:**

- Estuari dagokio bere osoan zeharkako zergak arautzeko gaitasuna (nagusiki, BEZa eta, hein txikiagoan, zerga bereziak), baina zerga horiek biltzeko gaitasuna Foru Ogasunari dagokio Nafarroan. Horregatik, beharrezkoa da Estatuarekin formulak hitzartzea, distortsioak eragozte aldera. Esportazioen BEZari dagokionez, diru-bilketa hori ez du Nafarroak egiten, Estatuak baizik, eta gero, behar diren doikuntzak egiten ditu Nafarroarekin. Mekanika horrek gauza

bereziki larria sortu du zenbatekoari dagokionez BEZari doakionean, Nafarroako arras enpresa garrantzitsu baten merkaturatze sistema aldatzearekin; zehazki, zerga horren bidez biltzen den diru guztiaren % 70 da. Badirudi arazo hori Hitzarmena aldatzearen bidez gainditu dela (arestian aipatu duguna), baina oraindik ere hortxe daude Zerga Agentziak berak eta UPyDk Auzitegi Gorenean eta Entzutegi Nazionalen hurrenez hurren tartekatutako errekursoak.

- Europako ikuspegi batetik. Euroaren esparruan, badirudi gehiago aurreratu nahi dela zergak harmonizatzeko nahian zeharkako zergen arloan zuzeneko zergen arloan baino, non desberdintasunak handiagoak baitira, bai eta Sozietateen gaineko Zergan ere; horren haritik, aspaldi esaten da teorikoki behintzat egokia izan daitekeela azken zerga hori harmonizatzea. Adi egon beharra dago mugimendu horien aurrean; beraz, beharrezkoa da gauzatu dadila Nafarroak eta estatuak egindako akordioa Foru Administrazioako ordezkariak ECOFINen egon daitezen.

- Oraindik ere badira zerga araudian (ez bakarrik Nafarroakoan) zergak ordaintzea saihesteko bideak; hau da, zergadun jakin batzuek, inguruabar berezietan, legea beteta, zerga gutxiago ordaintzen dituzte, errenta baliokideentzako baldintza normaletan ordainduko lirakeenak baino.

- 2011-2015 legealdian Parlamentuan osaturiko Zerga Ponentzian enkargaturiko txostenarekin bat, ezkutuko ekonomia BPGaren % 18-20 izan daiteke Nafarroan. Estatuako gainerako lurraldeetan dagoena baino ehuneko txikiagoa izanik ere, handiagoa da Europako erreferentziazko herrialdeentzat kalkulatu den ehuneko baino. Nafarroako Parlamentuan 2013an eta 2014an aho batez onetsitako araudiak gaitz horrek aurka borrokatzea du xede, baina haren eraginkortasuna ikusteko dago.

- Nafarroako Foru Ogasuneko tamaina (enplegatu kopurua) txikiagoa da nabarmen biztanleria osoarekiko (Estatuko gainerako lurraldeetan bezalaxe), erreferentziazko Europako herrialdeetan dagoen ehuneko baino. Zehazki, erdia gutxi gorabehera. Horrek zalantzaka sortzen ditu iruzurraren aurkako borrokan emaitzarik onenak lortzen ari ote diren.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO FISKALITATEA NAHI DUGUN**

- Zerga bidezko diru-bilketa berez ez da xedea, baizik eta funtsezko bitartekoa, Gobernuak ekintzak diseinatu eta ezar ditzan, batetik, jarduera ekonomikoa bultzatu eta finkatze aldera, eta bestetik, ongizate-estatu finantzatze aldera. Ziurtatu beharra dago zerga bidezko diru-bilketak behar diren baliabide ekonomikoak eman ditzala jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta zerbitzu publikoei eusteko, baina aldi berean, gure ingurune geografikoarekin bat heldu

den fiskalitatea mantenduz; hau da, zehatz-mehatz errespetatu behar ditu progresibotasun, estaldura eta hedapen printzipioak, eta batez ere elkartasuna (gizarte kohesioa agindu etikoa baita, bai eta lehiakortasun arloko agindua ere; beraz, arreta berezi-berezia errenta apalei eta ertain-apalei), eta inbertsioa eta enplegua sortzea lagundu behar ditu.

- Zerga iruzurra gaitz handia da, eta zerga bidezko diru-bilketari galera larria eragiteaz gain, insolidarioa da, hau da, guztiz gaitzesgarria ikuspegi etiko, politiko eta sozialetik.

- Nafarroaren eta Estatuaren artean hitzartutakoa bete egin behar da, eta Estatuako ezein instantziak (ez judizialak, ez bestek ere) ezin du aldatu atzeraeraginez.

### **LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK**

#### **Autogobernu fiskalaren arloan:**

- 1.** Nafarroak bere zuzeneko zergak arautzeko gaitasuna duela argitzea, baita aurrez Estatuarekin hitzartu ez diren arloetan ere, horri buruzko inolako zalantzarik izan ez dadin, eta aldi berean, Estatuako zuzeneko zergarik batere ezin izanen dela Nafarroan aplikatu, aurrez Nafarroarekin hitzartzen ez bada.

- 2.** Estatuaren aurrean, eskumen berri arau-emaileak hartzeko eztabaida irekitzea, zeharkako zergen arloan; bereziki, ekonomia suspertzeko eta enplegua sortu eta finkatzeko arloetan.

- 3.** Gogoeta egitea Hitzarmenaren Koordinazio Batzordeko nafar kideez, ziurta dadin (Gobernuaren eginkizun erabakigarria errespetatuta) defenditzen diren jarrerak Foru Parlamentuaren gehiengoaren sostengua izatea.

- 4.** Behar diren giza baliabideak eta teknikoak esleitzea, Hitzarmen Ekonomikotik Estatuarekiko heldu diren harremanak aztertu, prestatu eta haien jarraipena egiteko, ikusirik egunez egun arlo hori gero eta konplexuagoa eta garrantzitsuagoa dela.

- 5.** Komunikazio eta harreman esparru egonkor bat ezartzea EAeko zerga arloko eta kontzertu ekonomikoaren arloko arduradunekin, Estatuarekiko harremanarekiko informazioa, esperientziak eta zailtasunak partekatze aldera.

- 6.** Estatuarekin egindako ituna gauzatea eta ECOFIN erakundeko lan taldeetan era aktiboan parte hartzea, Europako estatu eta eskualdeetako mintzakideekin harremanak sakontzeko.

- 7.** Tokiko zerga-sistema aztertzea, hein handian higiezinen gaineko fiskalitateak erabakia, eta egungo errealitate konplexua ikusita, aldaketak sartzea komeni den baloratzea.

8. Dagozkion foroetan Eliza hirilurren kontribuzioan (gurtzarako erabiltzen ez diren ondasunetan) salbuetsita egotearen aurka gaudela azaltzea. Hori horrela izanik ere, ontzat jotzen dugu diru zailtasunak dituztenei laguntza emateko egiten dituzten jarduerak.

**Zuzeneko zergen arloan:**

1. Indarrean dagoen fiskalitatearen berrikuspena planteatzea, joan den abenduaren 29an UPNk, PSNk eta PPk onetsia.

2. Jarraipen iraunkor eta estua jakiteko zer-nolako joerak dauden Europan eta erreferentziazko beste herrialde batzuetan zerga-sistemen diseinuan eta ezarketan, hainbat gairen inguruan; adibidez, laneko errenten, aurrezpenaren eta ondarearen gaineko zergetan. Uneoro jarrera proaktiboa eta berritzailea izatea, arestian adierazitako printzipioak oinarri harturik.

3. Nafarroako zerga gaitasunaren mekanismoak sendotzea, hala PFEZean nola Sozietateen gaineko Zergan, ekoizpen eredu jakin bat bultzatzeko, garapen iraunkorra, berrikuntza, ekintzailtza eta enplegua garatzea sustatze aldera.

• Europako legeria hainbat esparrutan aztertzea; bereziki, etorkizuneko gizarte garapen iraunkorrean oinarrituriko eredu ekonomikoarekin lotuta daudenak, eta aipatu printzipioekin bat datorren zergaren bat ezartzea baloratzea; hau da, ez dezala eragin kaltegarririk izan, onuragarria baizik, etorkizuneko jarduera ekonomikoa sustatzeko. Nafarroaren eskumeneko tributuetan, Europako Zuzentarauak Estatuaren bitartekaritzarik gabe Nafarroara aldatzeko aukera aztertzea.

**Ezkutuko ekonomian, zerga iruzurrean, eta antolaketa eta aurrekontu konpromisoa:**

1. Legez dauden aukera guztiak berrikustea, Nafarroan zerga gutxiago ordaintzea ahalbidetu dezaketenak, errenta baliokideek egoera normaletan ordainduko lituzketenak baino; adibidez, SICAVs eta Enpresak Sustatzeko Elkartek.

2. Zergak ordaintzea saihesteko formulak (paradisu fiskalak, eta zergadun jakin batzuentzako akordio bereziak) ezabatzen laguntzeko neurri guztiak bultzatzea, Europako eta estatuko foroetan parte hartuz.

3. Ahalik eta gehien sendotzea denetariko entitate publikoekin (nafarrekin edo kanpokoekin) sinatutako hitzarmenak, iruzurraren aurkako borrokako emaitzak hobetzeko. Hitzarmenak sinatzea xede hori lortzen lagundu dezaketen entitateekin, mugaz gaindiko elkarlanaren aukerak erabiltzea barne.

4. Komunikazio eta harreman bideak sendotzea Estatuko ogasunekin, foru ogasunekin, bai eta Frantziakoekin ere, arlo honetan ideiak eta ekimenak partekatzeko.

5. Ahalik eta gehien sendotzea iruzurraren aurkako borrokara bideratzen diren informatika-sistemak eta kontrolerako nahiz informazioa gurutzatzeko teknologia berriak, behar diren aurrekontu baliabideak ezarriz.

6. Hurrengo legealdian, Zerga Ogasuneko giza baliabideak hazteko plana egitea, Europako erreferentziazko herrialdeetako batez bestekora nabarmen hurbiltzeko (Ogasuneko langileak/biztanleria).

7. Herritarren artean, hezkuntza eta kontzientziatze ekintzak egitea zergen arloan.





# **INGURUMENA | IRAUNKORTASUNA**







GEROABAI

Oinarri Politikoak

## INGURUMENA | IRAUNKORTASUNA

Esan daiteke azken urteotan Nafarroa pixkana-pixkana galtzen joan dela ingurumen arloan izandako erreferentzia (beharbada, ospe handiegia). Hura gehienbat ekimen pribatuetatik iritsitako erreferentzia izan zen, tinko egin baitzuten energia berriztagarrien alde, eta Nafarroako ingurumen ondarearen balio, aberastasun eta dibertsitatearen alde (aurrekoengandik iritsi zaigun ondarea), eta ez horrenbeste botere publikoek egindako kudeaketaren ondorio.

Egia da arlo publikotik noizbehinka jarduerak egiten direla, baina egia ere bada ez dagoela ingurumenaren inguruko estrategia globalik, hau da, estrategia integratzaile eta zeharkakorik, departamentu guztiak barnebilduko dituenik, gutxienez 2020ra bitarte begiratuko duenik, eta bere garapenerako, jarraipen arloko adierazle sorta zehaztu batean bermatuko denik.

Bestalde, begi bistakoa da Nafarroako Gobernuaren ingurumen kudeaketa izan dela azken urteotan aurrekontu murrizketak gehien pairatu dituen arloetako bat, eta horren ondorioa izan da, adibidez, besteak beste, CRANA ixteko agindua eman izana edo GANASA desegituratu izana. Horrez gain, badira gabeziak, hala nola:

- Ez da nahikoa garapen iraunkorra sustatzeko toki edo eskualde programen aurrekontu konpromisoa.
- Ez da behar den legeria garatu, arloari behar-beharrezkoa zaion bultzada emateko; esaterako, klima-aldaketaren kontrako borroka.
- Ez dira behar adina bultzatzen mugikortasun iraunkorreko politikak. Ez da garraio kolektiboaren aldeko apustu tinkoa egin.
- Oraindik ere, errepideko inbertsioak lehenesten dira trenbideko inbertsioen gainetik, hala hurbilekoa (tranbiak barne) nola ibilbide luzekoak.
- Motz gelditu da kontratazio berde-ekologikoaren aldeko apustua administrazioan.
- Ez da autogobernua egokitasunez erabiltzen (zerga kontuetan, adibidez), ingurumenarekin bat datozen portaerak gizartekotzeko.

### ZER-NOLAKO INGURUMEN

### ETA IRAUNKORTASUNA NAHI DITUGUN

Ingurumen arloko politikak bateragarri egin behar ditu ingurumeneko iraunkortasuna (natur baliabideen galeran joera alderantzikatuz) pertsona ahulenen bizi-baldintzak hobetzea. Kontuan hartu behar da garapen iraunkorrera daramaten erabakiak ez daudela soilik munta handiko erabaki politikoen mende, baizik eta era berean herritarren jarreraren mende ere, herritar

bakoitzak bere harri koxkorra ekartzen baitu ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko orekaren bilaketan.

**Geroa Baik** garapen iraunkorren oinarrituriko aurrerabide ereduarekin bat datorren ingurumen estrategia aldeztu du: oparotasun ekonomikoa, gizarte kohesioa eta ingurumen kalitatea. Aurrerabide ereduak xede izan behar du baliabide gutxiago kontsumitzea, ekoberrikuntza, eta ingurumen ondarea arduraz eta zentzuz kudeatzea.

### LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

Ezinbestekoa da egoera hori guztia aldatuko duen gobernu berri baten lana. Horregatik, hona hemen gure funtsezko proposamenak:

- 1.** Nafarroako ingurumen estrategia integral eta zeharkakoa ondu, onetsi eta ezartzea, gutxienez 2020ra arte begiratuko duena, helburuak, helmugak eta jarraipen adierazleak ezarrita. Estrategia gizarte eragileekin eta herritarrekin batera onduko da.
- 2.** Naturguneak hobeki zaindu eta kudeatzea; Bardeak, adibidez. Egiteko dauden Kudeaketa Planak eta Lehengoratzeko Planak ontezea, eta egungoak ezarri eta gauzatzeko. Zaintzari eginkizun gehiago ematea, nafar lurraldea zaindu eta kontrolatzeko; naturguneak, bereziki.
- 3.** Europar Batasunaren 20/20/20 konpromisoa bere egitea (CO<sub>2</sub> isuriak % 20 jaistea; energia eraginkortasuna % 20 handitzea, eta azken energiaren % 20 energia berriztagarrietatik etortzea). Berotegi-efektuko gas isuriak murriztea, bai eta osasuna kaltetzen duten gas eta partikula kaltegarria guztiak ere.
- 4.** Energia tinko aurreztu eta eraginkortasun handiagoaz erabiltzea; energia berriztagarrien eta ibilgailu elektrikoaren aldeko apustua. Ekoeraginkortasuna eta ekodiseinua pizgarri bidez gure enpresetan sustatzea. Biomasaren aldeko apustua.
- 5.** Frackinga errefusatzeko: egungo teknologiarekin ez da behar adina bermerik ziurtatzeko haustura hidraulikoak ez dituela osasuna, ingurumena, lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaigintza larriki kaltetuko, oso produktu toxikoak erabiltzen baititu; akuiferoetan eta lur azaleko uretan sar daitezke, eta lurzoruan nahiz paisaian beste eragin batzuk ere sortzen ditu, ur aso erabiltzen da, butanoaren isuriak ahaztu gabe.
- 6.** Jendearentzat eta salgaiarentzat, garraiobide iraunkorren pisua handituko duen mugikortasun kultura bultzatzea. Nazioarteko bide zabalaren bidez ingurunearekin eta Europarekin lotzearen aldeko apustu garbia, jendea eta

salgaiak garraiobide iraunkoragoen bidez garraiatzea sustatuz.

- 7.** Hondakinak bildu eta tratatzeko sistemarik aurreratuena eta tokiko egoerara hobekien egokitutakoen aldeko apustua, uneoro saiatuz gainerakoa frakzioa murrizten, jendartean ingurumenarekin bat datozen ohiturak sustatuz, eta beti herritarrek parte-hartza aintzat hartuz.
- 8.** Gure autogobernu fiskalaren bidez, ingurumenarekin bat datozen portaerak sustatzea gizabanakoengan nahiz enpresetan.
- 9.** Kontratazio publiko berdea bultzatzea, Europako herrialde aurreratuena mailara iristeko.
- 10.** Toki administrazioei iraunkortasuna kudeatzen egiazki laguntzea, Tokiko Agenda 21ak, ingurumen proiektuak edo antzekoa ekimenak sustatuz.
- 11.** Ekodiseinuaren aldeko apustutinkoa, baliabideak ahalik eta eraginkortasunik handienaz erabiltzeko neurria baita.
- 12.** Hondakinak ekoizpen prozesuetan erabil daitezkeen sustatzea, osasun eta ingurumen arloko bermeak ezarri, baita zerga desgrabazioak ere.
- 13.** Ondasun ez materialen, eta baliabide berriztagarriak erabiltzen dituzten ondasunen kontsumoa sustatu eta lehenestea, baliabide berriztaezinekin fabrikatutako ondasun materialen aurrean.



# HIZKUNTZA POLITIKA



GEROABAI

Oinarri Politikoak

## HIZKUNTZA POLITIKA

Zeharkakotasuna ardatz politiko gidaria Geroa Bai aldeztu duen kultura politika berrian, dokumentu honetan berean defendituriko hizkuntza politikaren ardatz ere bihurtzen den zeharkakotasuna. Gure helburu nagusia ahalik eta elebitasunik orekatuena lortzea da, hau da, Nafarroan euskara eta gaztelania parekatzea herritarren hizkuntza eskubideei dagokienez. Muturretan kokaturiko sektoreek defenditzen dituzten liskar kaltegarri eta antzuak saihestu behar dira, horiek ez baitira bi hizkuntzen elkarbizitza baketsua ulertzeko gai. Frantsesa Nafarroako hizkuntzetako bat bada ere (Nafarroa Beherean, behintzat), dokumentu honetan ez du tratamendu berezia izanen, Nafarroako Foru Komunitatearentzako gobernu-programa bat baita.

Hizkuntza eskubideak parekatzea lortze aldera, euskararen defentsa (Nafarroan hitzun gutxien dituen hizkuntza baita, eta hizkuntza gutxitua da) sektore berri batzuetara zabaldu beharko litzatekeela diogu. Euskara nafar guztion ondarea baita, herritarren nortasun edo ideologia atxikipena edozein delarik ere.

**Geroa Bai**, beraz, bat dator Europako Kontseiluak Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Kartan sustaturiko printzipioekin, ofizialtasunik ez duten edota oso ahultasun nabarmenean dauden Europako hizkuntza ororen defentsan eta sustapenean. Gogora dezagun Espainiako Estatuak 1992ko azaroan sinatu eta 2001eko otsailaren 2an berretsi zuela Karta; beraz, Nafarroan eta Estatu osoan aplikatu beharrekoa da.

Dena den, Europako Kontseiluaren txosten guztietan jaso denez, Foru Administrazioaren hizkuntza politikak euskara eta gaztelania parekatzea sustatu beharrean, bi hizkuntzen arteko desorekari eustea izan du xede, eta hizkuntza muga artifizialak mantendu ditu; hau da, bizi diren tokiaren arabera ematen zaizkie eskubide desberdinak herritarrei. Halaber, ia bere osoan murriztu dituzte euskara sustatzeko aurrekontuak, diru-laguntzak ukatu dizkiete gizarte ekimeneko euskaltegiei, euskara ikusezin egin dute hizkuntza paisaian, lizentzia ukatu diote Iruñerrian euskara hutsez ari den irrati bakarrari, EITBren seinale digitala hartzea zaildu dute, funtsik gabeko akusazioak egotzi dizkiote D ereduko hezkuntza publikoari, euskara administrazioan erabiltzea oztopatu dute...

Nolanahi ere, UPNren setakeria ideologikoak ez du eragotzi euskarak Nafarroan duen egoerari buruzko azken mapak hizkuntzaren hazkunde potentziala erakustea; hori "eremu mistoan" eta "eremu ez euskaldunean" da nabarmentzekoa, non euskararen sustapena oztopatzen baita, edo, are gehiago, jazarri ere egiten baita. Azken hogeitun urte honetan, biztanleria elebiduna (hau da, gaztelania eta euskara ongi hitz egin eta ulertzen duen jendea) eta elebidun pasiboa (euskara ulertu baina ez daki hitz egiten) Nafarroa osoan handitu dira.

## HIZKUNTZA POLITIKA

1991n % 9,9 baitzen elebidun, eta % 4,6, elebidun pasibo, eta 2011n, aldiz, % 13,68 eta % 10,4 dira, hurrenez hurren.

Itxaropentsua da, halaber, 1986ko Euskararen Legean izan den azken aldaketa, nafar familia guztiek D eredu publikoan ikasteko eskubidea bermatua baitute, non bizi diren alde batera utzita; horrela, eragotzi eginen da UPNko gobernu guztiek legeaz egin duten interpretazio murrizkorra eta bidegabea.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO HIZKUNTZA POLITIKA NAHI DUGUN**

Gero Baik hizkuntza politika berdintzailea nahi du, gaztelaniaren eta euskararen arteko berdintasuna bermatu nahi baitu; borondatezkoa, herritar bakoitzak erabaki behar baitu zer hizkuntza erabili, eta Administrazioak eskubide hori bermatuko du; diskriminazio positiboaren bultzatzailea, hau da, mendez mende lege zokoratu eta baztertu den hizkuntzaren aldekoa, diskriminazio positiboa demokraziaren tresna baita egoera juridikoak berdintzeko; malgua eta sosegatua, hau da, aplikazio mailakatuak ahalbidetuko dituena; progresiboa, ofizialtasunetik eratortzen diren neurriak aplikatuko baitira Nafarroako egoera soziolinguistikoaren errealitate dinamikoari erreparatuz; europarra, Europako eta Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Kartaren balioak bere eginen dituena; eraginkorra, hau da, behar adina baliabide izanen ditu eskura, administrazio publikoek aplikatu beharreko programak garantiaz garatze aldera, eta zeharkakoa, hau da, administrazio alor bakar baten mendean egon beharrean, departamentuen arteko kontsiderazio politiko integrala izanen du.

### **LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK**

#### **Epe laburrera:**

1. 135/1994 Foru Dekretuaren antzeko araua onestea, 29/2003 Foru Dekretu atzerakoia indargabetzeko, era onartezinean mugatu baitzuen euskararen erabilera administrazio publikoan eta hizkuntza paisaian.
2. Herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko duen hizkuntza politika egitea.
3. Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia sortzea, Departamentu guztien inplikazioa bermatuko duena; hau da, zeharkakotasuna bermatuko duena. Zuzendaritzak lan bateratua sustatuko du euskara berezko hizkuntzatzat duten gainerako lurraldeetako administrazioekin.
4. Nafarroako Parlamentuak Kongresuko mahaira lege-proposamena bidaltzea, Nafarroako izen ofiziala aldatzeko (Navarra) eta, aldi berean, Nafarroa izena onar dadin, Foru Parlamentuak berak 2004ko urriaren 4an onetsitako ebazpenari jarraikiz, zeinaren bidez Estatuko Gobernuak presatu egin baitzen

kudeatzera gure Komunitatearen izena gaztelaniaz nahiz euskaraz agiri ofizialetan ager zedin.

#### **Epe ertain eta luzera:**

1. Nafar herritarren hizkuntza eskubideak murrizten dituzten arau guztiak erreformatzea, abiaburu harturik lehen Foru Parlamentu demokratikoak 1980ko azaroaren 3ko bilkuran onetsitako irizpena. Irizpen hark, izan ere, gaztelania eta euskara, bi-biak, Nafarroako hizkuntza ofizialak direla ezarri zuen, eta printzipio hori Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Oinarrietan txertatu behar zela, eta era berean, Parlamentuak erabateko eskumena zuela huraxe lege baten bidez arautzeko.
2. Nafarroako herritar guztiak ukitzen dituzten Administrazioaren zerbitzuek hori hartuko dute kontuan, kokaturik dauden ingurune soziolinguistikoaren ezaugarriak edozein izanik ere eta osaera administratiboa edozein izanik ere.
3. Arartekoaren figura sendotuko da, herritarren hizkuntza eskubideak berma ditzan.
4. Euskararen aldeko komunikazio estrategia berria, euskarari buruzko irudi berritua eta integratzailea emateko eta, aldi berean, behar bezalako printzipioetan oinarrituriko hizkuntza politika egokia ezartzeko.
5. Euskarazko komunikabideak sustatzea, hala publikoak nola pribatuak. Euskararen erabilera hartu beharko da kontuan irrati nahiz telebista lizentziak ematean.
6. EITBren seinale digitala hartzea erraztuko da.
7. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea babestu, bultzatu eta duinduko da.
8. Euskara zerbitzuak toki entitate guztietara zabaltzea, eta behar adina baliabidez hornitzea, hala diruz nola langilez.
9. Lege esparru egokia, euskara zerbitzuetako langileen lanbide gaikuntza homogeneizatu eta profesionalizatzeko, administrazio publikoetakoetan ari direnena.
10. Elkarlana sustatzea euskararen aldeko lanean diharduten gizarte eragileekin, eta finantzaketa bideak bilatzea.
11. Ikerketa soziolinguistikoa Nafarroan bultzatzea.
12. NANA eta gidabaimena Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan berehalakoan egitea galdatuko zaio Estatuko Gobernuari.





# KULTURA





## KULTURA

Krisiaren etorrerak eta murrizketa etengabeek oso nabarmen ukitu dute Nafarroako Gobernuko Kulturarako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzuen prestazioen kalitatea (Ondarea, Museoak, Liburutegia eta Kultur Ekintza), eta era berean, udaletako kultura zerbitzuen prestazioak, Foru Administrazioetik askoz ere diru-laguntza gutxiago iritsi direlako.

Estatu mailan kulturaren BEZa ikaragarri handitu izanak areagotu egin du Nafarroako kultur enpresa batzuen biziraupen arriskua, eta Espainiako Estatua nazioartean da herritarrek kulturara sartzeari gehien oztopatzen duenetako bat.

Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentua gero eta urrutiago dago kultur arloko administrazio berrietatik. Izan ere, administrazio berriok plan eta proiektu estrategikoak sustatzen dituzte, eta horrekin batera, praktika egokiak gardentasunean eta herritarren parte-hartzean, sektoreen arteko elkarlanerako estrategiak diseinatzen dituzte, eta kultur herritartasuna sustatzen dute. Kultura Departamentuak XX. mendeko erakunde zahar bat iduri du.

Honatz kulturak Nafarroan dituen gabezia nagusiak: aniztasun kulturalik eza, kulturaren finantzaketa publiko eskasa, plangintza estrategikorik eza, administrazio publikoen arteko koordinaziorik eza, behar adina giza baliabiderik ez, garapen eta prestakuntza plan publikorik ez izatea, parte-hartzeko biderik eza, eta ekipamenduen banaketa desorekatua lurraldean.

Honatz kulturak Nafarroan dituen indargune nagusiak: kultur eta hizkuntza nortasun handia; ondare aberatsa (arkitektura, monumentuak, dokumentala eta ez materiala); kultur ekipamendu garrantzitsu batzuk; mintegi sortzaile aktiboa (artistak, idazleak, etab.), eta profesional onak; elkartegintza bizia eta anitza; eta hiru Unibertsitate izatea.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO KULTURA NAHI DUGUN**

Nafarroa anitzagoa eta demokratikoagoa bultzatzeko dugun konpromisoak, herritarrengandik hurbilago egonen denak, zutabe du kultur esparru ireki eta berritzailea sortzea. Aniztasuna (dibertsitatea da) beti hartu beharko dugu gogoan. Izan ere, UNESCOk bere Adierazpen Unibertsalaren 3. artikuluan adierazi duen moduan, **“kultur dibertsitatea gizadiaren ondare nagusia da”**.

Geroa Baik proposatzen duen kultur politikak bi xede ditu. Batetik, gizartea kohesionatu eta erronkei ekiteko bizikidetza esparru funtsezkoak osatzen dituzten balioak, bizimoduak eta pentsaerak sustatzea: hau da, askatasun eta sormen handiagoa eta parte-hartze handiagoa. Bestetik, ahalik eta gehien zabaltzea kulturari darion isuri sortzaile eta berritzailea, jendarte garaikideek dituzten erronkei erantzuteko. Kultur politiken erronka berria da hurbiltasunean

eta parte-hartzean oinarrituriko garapen komunitarioa kulturaren bidez garatzea, jendarte zabala, irekia, sortzailea eta anitza sortzeko.

**Geroa Bain** argi dugu kultur eskubideak gizakiaren funtsezko izaeraren eskubideak direla, horiek izaki herritartasun osoaren oinarria. Plangintza estrategikoak kultura politika publikoen erdigunean jartzen lagundu behar du. Herritarrek kontu publikoetan parte-hartzea NBEren adierazleetako bat da, giza garapen jendarteetan noraino iritsi den neurtzeko. Horrela, herritarren parte-hartzea bere adierazpen guztietan errazten duten arau-esparruak eta erakunde-esparruak izatea aldeztu dugu. Azkenik, eta kultur dibertsitateari lotua, euskal kultura balio multzo paregabea da Nafarroan, herri bakoitzaren tradizioak eta adierazpen moldeak baitira herriek munduan agertzeko duten modurik taxuzkoena. Kultura guztiak dira duin, eta alde horretatik, neurri proaktiboak hartu behar dira, euskal kultura Nafarroan aitortu, babestu eta sustatzeko.

## LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

### Herritartasun kulturala, xede

Helburu nagusiak dira nafar herritarrek kultura eskuratzen duten eskubidea bermatzea, lurralde desoreka nahiz soziokulturala zuzentzeko borondate argiarekin; kulturara diru gehiago bideratzea, kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko; gobernantza eredu baterantz jotzea, profesionalek eta herritarrek kultur politikan eta kultur garapenean parte har dezaten sustatzeko; herritarrek kultur politiken eta zerbitzuen erdigunean kokatzea, parte-hartze handiagoa eraginez; eta, jakina, kultur elkartegintzaren adierazpen guztiak sustatu eta laguntzea.

### Nafarroa, aniztasun herria

Nafarroako ondarea zaindu, babestu eta lehengoratzea: arkitektura, monumentuak, dokumentala eta ez-materiala. Lan egiten dugu, herritarrek (belaunaldi berriek, bereziki) Nafarroako kultur ondarearekiko interes handiagoa izan dezaten eta gehiago ezagut dezaten.

### Kultur sorkuntza sustatzea

Jarduera sortzailearen balioa areagotu eta nabarmentzeko neurriak hartzea. Aldi berean, sortzaileei erraztasunak ematea, artelanak publikoengana hurbiltzea inplikatu daitezten.

### Kultura, lurraldea garatzeko eragile

Kultura sustatzea, lurraldea garatzeko eragilea baita; horretarako, kultur eta sormen arloko industrien posizio lehiakorragoa izatea sustatu behar da. Kultur arloko industria sustatzeko neurriak hartzea, eta enplegua mantendu eta

sortzeko. Jarduera sortzailearen balioa areagotu eta nabarmentzeko neurriak hartzea, talentu artistikoak sor daitezten sustatuz eta aukerak sortuz, gazteen artean, batez ere.

### Nafarroa bere ingurunearekin elkarrizketan aro digitalean

Kultur elkarrizketa iraunkorra mantentzea, arlo globalean pentsatu eta tokian ekitea sustatze aldera. Artista eta sortzaileen elkarlan eta trukaketa proiektuak areagotzea EAErekin eta Pirinioetako Komunitatearekin. Nafarroako kultur ekoizpena beste merkatu batzuetan hobeki agerrarazteko neurriak hartzea.

Helburu horiek guztiak lortze aldera, honatx Geroa Bairen proposamena:

1. Gobernantza eredu bat lortzea, profesionalek, publikoek eta herritarrek kultur politikan eta kultur garapenean parte har dezaten.
2. Kultur Eskubideen Foru Lege bat onestea, Nafarroako herritarrek orok kultura eskuratzeko aukera izan dezaten bermatzeko.
3. Aurrekontu publikoak nabarmen handitzea, legegaldiaren bukaeran Europako ehunekoetara iritsita.
4. Kulturaren Plan estrategikoa berrikusi eta ebaluatzea, parte-hartzean oinarriturik.
5. Nafarroako Kultur Behatokia sortzea.
6. Euskaraz bizitzea: euskarazko kulturarako sarbidea bermatzea eta euskarazko kultur eskaintza bermatzea.
7. Software librea aplikatzea: Foru Administrazioak sustaturiko garapen nahiz aplikazio guztietan erabiltzea.
8. Zitudadela arte garaikideko gune bihurtzea.
9. Egoitza artistikorako programak sustatzea: lan talde bat sortzea erakundeen eta kultur gintzaren artean, aipatu programen (dantza, antzerkia...) elkarlan hitzarmenak aztertu eta ezartzeko.
10. Arte Gaztea Sortzeko Lantegi bat abiaraztea (entsegu eta sormena lantzeko gunea) arte diziplina guztietarako.
11. Kultur ekintzaileak sustatzea
12. Kultur kontsumoa bultzatzea: langabeentzako bonu kulturala. Txartela gazteok (kultur bonua) izeneko txartela sortzea, gazteen artean kultur produktuak eta ikuskizunak kontsumitzea sustatze aldera.
13. Arte Eszenikoen katea aberastuko duen produkzioen promozioa .



## KULTURA

bertako zein nazioarteko artistak inplikatur, esperientzia eta gaztetasuna konbinatur, produkzio eta emanaldi bakoitza sektoreko eragile guztientzat trebakuntzarako eta birziklatzeko aukera bilakatur. Gainera, honela, sektorea indartu eta egituraturako litzateke, enplegua sustatzen duten ekoizpen prozesuen bidez.

# GOBERNU IREKIA





## GOBERNU IREKIA

Egia da teknologia berrien garapen izugarriak eta komunikazioaren paradigmetan izaniko aldaketek bultzatu dituztela gobernu irekiaren prozesuak munduan, baina aldi berean, egia ere bada hori guztia lanabesa izan dela, eta gobernatzeko molde berrien xedea demokrazia sendotzea dela.

Nafarroari dagokionez, legealdi hasieran arlo honetan ekimen batzuk abiarazi baziren ere, hala nola Gobernu Irekirako eta Teknologia Berrietarako Zuzendaritza Nagusia sortzea (PSN Gobernutik ateratzearekin batera bukatu zen) eta Gardentasun eta Gobernu Irekiari buruzko Legea onestea (zer hobetu handia izan zuena), gaur egun Nafarroako Gobernuak ez du inolako estrategiarik Foru Administrazioa irekitzeko, ez bada neurri gutxi batzuk mantentzen dituztela datu batzuk argitaratzeko, baina ia ez dute informazio garrantzitsurik ematen, eta gainera, herritarrak berak eskatu behar du informazioa eta, batez ere, ez dituzte eskari guztiak asetzen, haiek nahi dituztenak baizik; beraz, hori kontraesanean dago datu publikoak herritarraren "jabetzapekoak" direlako printzipioarekin.

Onartezina da parte-hartzea sustatu nahi duen lege hori onetsi izana, oposizioko taldeek aurkeztutako zuzenketa eske guztiak errefusatuta, eta eztabaida saihestuta.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO GOBERNU IREKIA NAHI DUGUN**

Gobernu irekia garatzeko egiazko estrategiak funtsezko bi ardatza izan behar ditu: teknologiek eskaintzen dituzten aukerak, eta teknologiak behar bezala erabiltzea, demokrazia sendotzeko eta herritarrak ahalduntzeko.

Beraz, gobernu irekiaren ekintza orok etikatik eta herritarrekiko lankidetzatik abiatu behar du, eta hori erabat da beharrezkoa, herritarrak baitira gobernu irekiaren benetako ardatza.

Hori guztia gogoan, Geroa Baik gobernu irekirako estrategia garatzeko konpromisoa hartu du, honakoak oinarri harturik:

- **Gardentasuna:** Herritar orok izan behar du prozesu, datu, produktu eta zerbitzu publikoak ezagutzeko gaitasuna, informazio publikoaren jabeak baitira.
- **Parte-hartze demokratikoa:** Herritarrek eskubidea dute prozesu politikoaren fase guztietan parte hartzeko; proposamenetan, eztabaidetan, erabakietan eta balorazioetan.
- **Datu irekiak:** Administrazio publikoa behartua dago bere datuak formatu berrerabilgarrietan partekatuzera, balio erantsia, ekintzailtza eta elkarlan publiko-pribatua sortzea sustatze aldera.
- **Lankidetzak lana:** Administrazio-egiturak era horizontalean antolatuta,

eta lankidetzaren lanerako moldeak eta sareak bultzatuta administrazioaren departamentuen artean, eta administrazio publikoaren eta sektore pribatuaren artean.

- **Teknologia berriak nonahi erabiltzea:** Administrazio publikoaren eraginkortasuna eta eragingarritasuna, herritarrak administrazio-prozesuetan sartzeko bideak eta Administrazioa-Herritarra komunikazioa hobetuta.

### LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

"Herritarrekiko kontratu" baten gisara, Geroa Baik neurri hauek bultzatuko ditu:

1. Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Lege berri bat onestea, informazioaren eta datu publikoen jabetza herritarrarena delako printzipioa oinarri harturik. Administrazioak, gainera, datu publikoak eman behar ditu, Datu Pertsonala Babesteari buruzko Legeak babestutakoak izan ezik eta administrazio-prozedura erreserbatuetan daudenak izan ezik.
2. Gardentasunaren Ataria berehalakoan hobetzea eta edukiz hornitzea, datu publikoak, prozedurak (fase guztietan), Administrazio publikoaren produktu eta zerbitzuei buruzko informazioa eskuratzeko aukerarekin eta moduarekin, eta era berean, jarduera publikoari buruzko, huraxe osatzen duten organoei buruzko eta haien kudeatzaileei buruzko informazio oro. Era berean, informazio hori guztia argitara eman behar da, nafarrek horren berri izan dezaten.
3. Behar diren mekanismo teknologikoak aztertu eta ezartzen joatea, herritarren eskura parte hartzeko plataformak jartzeko, hala nola foroak, kontseiluak, mahaiak, herri kontsultak, panelak eta herritarrez osaturiko epaimahaiak, jendeak prozesu politikoaren fase guztietan parte hartzeko aukera izan dezan.
4. Nafarroako herritar guztiek teknologia berriak errazago eskuratzeko bitartekoak paratzea, non bizi diren alde batera utzita, eta haien gizarte edo ekonomia egoera edozein izanda ere, eta "haustura digitala" gaindituta; horretarako, banda zabala pixkana lurralde osora zabalduko da, eta teknologia berrietan prestatzeko programak garatuko dira, lekurik bakartuenetako jendearentzat bereziki.
6. Kontsultei eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Legea bat bultzatzea, herri-ekimen legegilea, erreferendumak, eta baliogabetze-prozesu legegileak eta ordezkartzeak arautzeko.
7. Administrazio elektronikoan aurrerajotzea, ahalik eta lasterren administrazio-prozesu guztietara iristeko.

8. Datu publiko berrerabilgarri guztiak herritarren eta enpresen eskura jartzea, eta haiekin elkarlanean aritzea datuak lehentasunez argitaratzeko eta erabili beharreko formatuetan.

9. Administrazio Publikoa Modernizatzeko Plana bultzatzea, ardatz hartuta herritarrei arreta egitea, baliabide publikoak eraginkortasunez erabiltzea, enplegatu publikoak gogobete eta motibatzea, sare-lana, administrazio-egitura era horizontalean antolatzea eta, hori guztia, Administrazioarekin, herritarrekin, enprekin eta gizarte-eragileekin elkarlanean.

10. Berariazko Administrazio Unitate bat sortzea, Gobernu Irekia bultzatzeko, proposamen honetan bildutako puntu guztiekin bat, eta aldi berean, herritarrekin nahiz eragile inplikatu guztiekin komunikatzeko tresna izan dadila.





## **GENERO BERDINTASUNA**







## GENERO BERDINTASUNA

Azken urteotan, genero-berdintasunaren aldeko borrokan, aurrerapausoak izan dira gizartean, legeetan eta komunikabideetan. Eragile askok eragin dituzte, baina nabarmentzekoa da benetan feminismoak eta emakume-elkartegintzak bultzaturiko lana.

Arauei dagokienez, Nafarroak berriazko legeria du emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, 2002tik hona. Egungo Foru Gobernuak konpromisoa hartu zuen, 2011-2015 legealdian berriazko araudiak ontzeko bai berdintasun arloan bai emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, baina oraindik ere indarrean diraute 22/2002 Foru Legeak nahiz 33/2002 Foru Legeak, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatzeari buruzkoak. Araudi egokia izatea funtsezkoa da aldaketa-prozesua gauzatzeko, baina araudia garatu eta betetzeak adierazten du zer-nolako lehentasuna ematen dioten gobernuek arlo honi.

Aurrekontuetan izaniko murrizketek sakon baino sakonago ukitu dituzte genero-berdintasunaren aldeko politikak Nafarroan, eta ez bakarrik aurrekontuetako diruak behera izugarri egin zuelako. Hau da, berdintasunaren arloko organismoaren funtsa bera aldatu baita, arlo honetako politikak planifikatu, garatu eta koordinatzea baitzuen eginkizun nagusi. Horrela erakutsi nahi izan da azalez eta mamiz, estatutuak eta izena bera aldatu baitira: 2011ra arte, Berdintasunerako Institutua zen; 2011n, Berdintasunerako eta Familiarako Institutua, eta 2012an, Familiarako eta Berdintasunerako, non 'Familiak' familiak eta adingabeak baitira. Estatueta izaniko aldaketa horiek berdintasunaren aldeko politikak baztertu, haien zeharkakotasuna lausotu eta Institutuaren berriazko eskumenak ezabatu dituzte, hasiera sortu zenaz bestela.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO GENERO-BERDINTASUNA NAHI DUGUN**

**Geroa Bain** jendarte demokratikoago, bidezkoago eta berdinagoaren aldekoak gara. Oraindik ere beharrezkoa da jendartearen egitura aldatzea, aldaketa lagungarria izanen baita emakumeak ahalduzko, eta emakumeek politikan nahiz erabakietan era aktiboan parte har dezaten sustatzeko. Funtsezkoa da hezkidetzaren sustatzea, hau da, berdintasunean oinarrituriko eta berdintasunerako heziketa.

**Geroa Baik** konpromisoa mantenduko du, genero-berdintasuna bere programa-estrategiaren barnean txertatzeko, bai eta plangintza politikoan nahiz aurrekontuetan txertatzeko ere. Printzipio ukaezinak dira Geroa Bairentzat emakumeen kontrako indarkeria sexistarik gabeko bizitza librerako ekarpena; soldata-berdintasuna lortzea, lanean emakumeak ez baztertzeko, eta haientzako

kalitatezko enplegua lortzea; zainketaren etika sustatzea, gizonen eta emakumeen ardurakidetzaren eraginkor egiteko bai zainketa lanetan bai etxeko lanetan; eta era berean, bestelako kultura politiko bat sortzea, emakumeek parte har dezaten eta gidaritza politikoko eredu berrien garapena susta dadin.

Aldi berean, azken hamarkada honetako lege eta gizarte aurrerapausoak gorabehera, urrun gaude arauz kanpoko identitateak dituzten pertsonenganako bazterkeriarik gabeko jendartea lortzeki. Geroa Bai lanean ari da, jende guztiaren berdintasuna bultzatzeko bai legeetan eta jendartean, egiazko berdintasuna erdieste aldera, pertsonen sexu orientazioa edo identitatea edozein izanik ere.

## LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

### • Berdintasuna politika publikoen kudeaketan

- Nafarroako Berdintasunerako Institutua berreskuratzea, eta hierarkiari dagokionez, Lehendakariaren Departamentuaren mendean kokatzea.
- Legeen genero-eraginaren azterketa galdatzea, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan genero-ikuspegia lehenetsiz.
- Hizkuntzaren erabilera ez sexista eta integratzaileari buruzko araudia betetzea.
- Genero Berdintasunerako Foru Lege berria egitea. Berdintasunaren arloan Plan estrategiko bat onestea hurrengo legealdirako.
- Berdintasunaren Behatoki espezializatu bat sortzea.
- Lan arloan, genero-berdintasuna Nafarroako enpresa guztietan (publikoetan zein pribatuetan) txertatzea.
- Emakume-elkarteen eta talde feministen parte-hartze aktiboa aintzat hartzea planen eta ekintza politikoaren diseinuan eta ebaluazioan.

### • Indarkeria sexistaren aurka

- Berehalakoan Plan Estrategiko bat garatzea, indarkeria matxistaren aurkako Lege berria aplikatzeko.
- Biktimak artatzeko talde integralak sendotzea.
- Baliabide espezializatuak sustatzea; harrera-etxeak, adibidez.
- Berme-funts bat ezartzea genero-indarkeria pairatu duten emakumeentzat; hots, pentsiorik jasotzen ez dutenentzat.
- Biktimak laguntzeko boluntarioritza espezializatu bat sendotzea.

### • Prostituzioa eta sexu esplotazioa Nafarroan

- Sexualki esplotatzen duten sare eta taldeen kontrako jazarpen instituzionala.
- Prostitutak osasun eta laguntza zerbitzu publikoetan sartzea.
- Jendartean eztabaida eragitea, estigmatizazioa amaitzeko.

### • Haurdunaldia eteteko eskubidea

- Emakumeen ugalketa autonomiarako eskubidea bermatzea; emakumearen beraren erabakia soilik izan behar da haurdunaldia borondatez eteteko zergatia.
- Eskubide honen izaera unibertsala bermatzea, eta haren normalizazioa galdatzea, sare publikoaren barneko osasun prestazioa den aldetik, eta haurdunaldia borondatez etetea Nafarroan bermatzea.
- Kontzientzia-eragozpena arautzea, eta haren mugak zehaztea. Erakundeek eta administrazioek eragozpenik egiteko aukera ez izatea.
- Sexu heziketari eta heziketa antikonzeptiboari buruzko politika publikoak sustatzea.

### • LGBT kolektiboaren eskubideen benetako berdintasunaren alde

- LGBTfobiaren aurkako lege integral bat onestea.
- Nafarroako Berdintasunerako Institutuan LGTBQ kolektiboa artatzeko berezko zerbitzua bat sortzea.
- LGBTfobiari zeharkakotasunez aurreko egiteko programa hezigarriak, sozialak eta kulturalak garatzea erakunde guztietan.

### • Ardura partekatutak

- Babesten jarraitzea gurasoek adingabeak zaindu eta artatzeko baimen eta prestazioen sistema erreformatzeko lege proposamena jaiotza, adopzio edo harrera kasuetan. Bere garaian, Kongresuan aurkeztu zenean, Geroa Bai hurrengo ere babestu zuen.



# **TOKI ADMINISTRAZIOA**



## TOKI ADMINISTRAZIOA

Politikagintzak herritarren artean duen ospe txarra horren kezkarria den garai honetan, arreta berezia jarri beharra dago toki administrazioan. Ez dezagun ahaztu toki administrazioa administrazio hurbila dela; beraz, indarrean dagoen erakunde-sarearen barruan, honexek ematen dio aukera jendeari kontu publikoetan politikoki parte hartzeko, hori eskubide demokratikoa baita.

Geroa Bairen irudikoz, subsidiariorotasun printzipioak gidatu behar du gure erakundearen orientazio politikoa toki administrazioaren arloan. Azken urteotan, tamalez, horren kontrako norabidean joan den ildo politikoaren lekuko izan gara. Izan ere, krisia aitzakiatzat erabili da toki mailaren eskumen esparrua murrizteko, eta hara, toki administrazioa kudeatzaile onena izan da (Nafarroan, behintzat) administrazio publiko guztien artean.

Abenduaren 27ko 27/2013 Legea, toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa, Estatuko Gobernuak eta PPK erabili dute, toki administrazioan erreforma basatia planteatzeko, eta handitu egin da orain arte Estatuari aitortu zaion irismena toki araubideen oinarrien gainean, eta horretarako, aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren printzipio santuak aipatu dira.

**Geroa Baik**, Estatuko gainerako indar aurrerakoiekin bat eginik, erabat agertu da lege horren auka, legearen xedea baita toki entitateen jarduketa esparrua urritzea eta Estatuak tutela neurriak sartzea. Bestalde, eta PPren gehiengo osoak eraginda, Legea indarrean sartu denez, tinko lan egin dugu Nafarroan aplikatu ez zedin, eta horren haritik, oso idazketa zehatza bultzatu genuen helburu hori lortu nahian, gure foru erregimenaren berezitasunak oinarri harturik; zoritxarrez, ordea, gure proposamena ez zen aurrera atera. Horren orde, UPNk askoz ere aukerabide arinagoa proposatu zuen, zehaztasunik gabea, eta epe erdira, interpretazio arazoak sortuko ditu.

Nafarroan bertan, **Geroa Baik** hainbat neurri sustatu eta babestu ditu ordezkartza duen erakundeetan (udaletan, Nafarroako Parlamentuan), Estatuan egindako erreforma hori Nafarroan aplikatzea eragozteko, ez baititu gure berezitasunak kontuan hartzen, ezta gure errealitatea ere, eta tinko egiten du zerbitzu publikoak eraistearen eta pribatizatzearen alde.

Eta, bitartean, UPNko Gobernuak ez da gauza izan Nafarroako toki mapa erreformatzeko, arrunt beharrezkoa izanik ere; ez du bete, beraz, Parlamentuko taldeek aho batez emandako agindua. Geroa Bairen irudikoz, ezinbestekoa da zeregin horri ekitea, abiaburuko egoera kontuan harturik, baina arlo horretan gobernuak abiarazi dituen ekimen guztiek, hasieran PSNk, eta gero, UPNk sustaturikoek (foru lege proiektuak, ponentziak, etab.) porrot egin dute.



## TOKI ADMINISTRAZIOA

adostasunik izan ez delako. Horretan ere huts egin du gobernu honek, eta egiazki da gai funtsezkoa. Gobernuak egin duen kudeaketak ezaugarri izan du munta txikiko planteamenduak egin izana eskumenen arloan gure toki entitateentzat; ez dute behar adinako finantzaketarik izan, toki entitateen autonomia bermatzeko, eta udalei bizkarra emanda egin dira, egiazko parte-hartze prozesurik gabe.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO TOKI ADMINISTRAZIOA NAHI DUGUN**

**Subsidiariorotasun printzipioan** oinarritua dago Geroa Baik toki administrazioarako proposatu duen politikak, printzipio hori Europako Toki Autonomiaren Gutunean jasoa baitago. Printzipio horrekin bat, ekintza publiko tinkoa egin behar da toki entitateak administrazio hurbilena den heinean duen posizioa sustatzeko. Ekintza publikoak, gainera, udal autonomia sendotu eta erabat bermatu behar du bere zabalera guztian. Azken buruan, ekintza publikoak apustu tinkoa egin behar du, erakundeak berriz ere herritarrengana hurbiltzeko.

Guk bultzatu nahi ditugun neurriek honako ezaugarriak dituen toki administrazioa lortu nahi dute; kudeaketa gardena; jendearengandik hurbil, parte-hartze prozesuen bidez; kalitatezko zerbitzu publikoak ematearen aldeko apustua, eta horretarako behar adina baliabide izatea; administrazioan buru izanen diren toki karguek zerbitzu publiko gisa ulertu behar dute politikagintzan darabilten esku-hartzea.

### **LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK**

- 1.** Elkarrizketa prozesua abiaraztea Nafarroako toki entitate guztiekin, udal karguak berri ondoren, behetik gorako parte-hartze prozesua adosteko, Nafarroako Toki Administrazioa berregituratze aldera, beharrezkoa baita (eskumenak, finantzaketa, egiturak).
- 2.** Nafarroako toki entitateek bere gain izan behar duten eskumen maila eztabaidarako proposatzea, egiazko udal autonomia bermatze aldera.
- 3.** Behar adinako finantzaketa esparru bat proposatzea eztabaidarako, udal zerbitzuak egokiro ematea bermatze aldera eta, aldi berean, udal entitateek Nafarroako zergetan partaidetza bidezkoa izatea bermatze aldera.
- 4.** Mapa berri bat proposatzea eztabaidarako, Nafarroako toki entitate guztientzat, betiere prozesutik aterako den eskumen eta finantza esparruarekin bat datorrena.
- 5.** Toki azpiegituren arloan, Plan zuzentzaileak alda daitezela bultzatzea, inbertsioak berrantolatze eta egungo egoerara egokitzeko (hornidura,

saneamendua, hondakin-uren arazketa, kale zoladurak, argiteria publikoa, telekomunikazio-sareak, etab.). Legealdian barna, Toki Azpiegituren Plana berrezartzea, azken urteotan geldiarazi diren inbertsioei ekiteko. Berehalakoan, Erabilera Libreko Funtsa bat sor dadila sustatzea, toki entitateek premiazkoen jotzen dituzten obrak egin ditzaten.

- 6.** Bidaiariak garraiatzeko plan bat proposatzea eztabaidarako Nafarroako herri guztientzat, arlo honetan adostasuna lortzeko asmoz.
- 7.** behar diren lege erreformak sustatzea, egungo Sinboloei buruzko Foru Legea aldatzeko, gure herrietan dauden identitate sentimendu ezberdinen errespetua oinarri harturik.
- 8.** Unitate espezializatu bat sortzea Toki Administrazioaren Departamentuaren baitan, eta behar diren baliabideak izan ditzala, toki entitateak aholkatze aldera, herritarrek parte hartzeko eta gardentasunerako neurriak ezarri eta haien jarraipena egiteko.
- 9.** Behar diren mekanismoak egituratzea, toki entitateen iritzia kontuan hartua izan dadin eraginkortasunez bermatzeko diru-laguntza finalisten arloan; hots, Nafarroako Gobernuko departamentuek toki entitateei ematen dizkieten diru-laguntzen diseinuan.
- 10.** Giza baliabideak eta materialak jartzea eskura, Nafarroako Gobernua egiazki inplikatu dadin eskualdeak garatzeko planen ezarpenean.
- 11.** Gobernu-ekintza orekatua garatzea lurraldeari begira, Nafarroako eskualderik batere baztertua sentitu ez dadin.
- 12.** Toki tributu-sistemaren inguruko eztabaida bultzatzea, higiezinen fiskalitatean zer aldaketa egin behar diren baloratuta eta egungo errealitatea kontuan hartuta.



# **FUNTZIO PUBLIKOA**



**GEROABAI**

**Oinarri Politikoak**

## **FUNTZIO PUBLIKOA**

Sektore publikoak oro har ospe txarra izan du herritarren artean, hala bere okerrek berek eta bizioek eraginda nola, aunitzetan, alderdikieriaz erabili izanaren ondorioz eta gehien defenditu behar zutenek –politikariek– errespetuz tratatu ez dutelako; bada, hori areagotu egin da krisiak erditik jo duen garai honetan. Betiko topikoak dabiltza sektore publikoaren gainean; hots, baliabideen kontsumitzaile aseezina, batere eraginkorra ez den alimaleko makineria, eta kasta pribilegiadun baten egoitza (funtzionarioak), baina azken hamarkada hauetan, sektore publikoen aurkako ekintza etengabea egin da, haren ospea zikintzeko, neoliberalismoak bultzaturik, eta aldarrikatzen dute arlo publikoaren tamaina eta presentzia urritu behar dela arlo pribatuaren mesedetan, azken hori arlo publikoa baino kudeatzaile hobea delakoan.

Beraz, sektore publikoaz edo administrazio publikoaz mintzo garenean, ez dezagun ahaztu pertsonen edo taldeen interes ekonomikoak daudela eskaintzen zaizkigun proposamen asko, haien mesederako hartu nahi dituztelako egun arlo publikoan dauden jarduera-atal atal handiak (gizarte, osasun, hezkuntza zerbitzuak, baita segurtasun zerbitzuak ere, etab.). Era berean, ez dezagun ahaztu behar den izen ona berrekuratuko bada, eta herritarrek sektore publikoa estimatuko badute, hoztasunez aztertu beharko da sektore hori egungo beharretara egokitzea, ahuldadeen eta indarguneeen diagnosi ona egin beharko da, eta nahitaez epe luzera izan beharko duten konponbideak proposatu.

Administrazio publikoa bezala, funtzionarioaren irudiari izen ona kendu zaio, hala berezko okerrek eta metaturiko bizioek eraginda, nola bidegabeki egotzi zaizkien topikoek eraginda. Horri gehitu behar zaio zer-nolako ekinaldia izan den esateko funtzionarioak kasta pribilegiaduna eta ez-eraginkorra dela, eta hain eskasia handiko eta baliabide publikoak hain urriak diren une honetan, funtzionarioak gogor tratatu beharko lirateke, haien dimentsioa murriztuz, soldatak apalduz eta izoztuz, eta are gehiago, aparteko ordainketa bat ezabatuz. Horri gehitu behar zaio ez dagoela Nafarroan egiazko administrazio-karrerarik, antolaketa-egitura zaharkitua dagoela, intromisio politiko arbitrarioak, edo jarraibde eta helburu argirik eza; hortaz, ez da harrizkoa une honetan, noiz eta funtzionarioen ekarpena gehien behar denean, langileon gogo aldarrea eszeptizismoari eta motibaziorik ezari lotuta egotea.

23.000 enplegatuk baino gehiagok osatzen dute sektore publikoa Foru Administrazioan; horietatik, ia 18.000 Osasun eta Hezkuntza Departamentuetan daude. Hori oso kontuan hartu behar da, hain arinki funtzionario kopurua murriztu behar dela esaten denean, eta errezeta generikoak proposatzen direnean, kontuan hartu gabe osasun eta hezkuntza arloko langileek berariazko tratamenduak behar dituztela.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO ADMINISTRAZIOA NAHI DUGUN**

Administrazio publikoak modernizatzeko saiakerak gorabehera (nagusiki, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak administrazio-prozesuetan eta herritarrekiko harremanetan aplikatzea, egia da haren egiturak oinarrian iragan mendeko jarraibideei erantzuten diela, eta jarraibide horiek ez dute zerikusirik egungo egoerarekin; hortaz, nekez eman dakieke erantzun egokirik premia nahiz inguruabar ekonomikoari eta sozialei.

Sektore publikoaren aldeko apustu tinko eta argia abiaburu harturik, eta aintzat hartuta haren funtzionamendu egokia beharrezkoa zaigula jendarte kohesionatuago, bidezkoago eta berdinoago bat lortzeko, premiazkoa da gogoeta bare eta sakona egitea etorkizunean bete behar duen eginkizunari buruz, eskaini beharreko zerbitzuez, hori egiteko moduez (zuzenean, ekimen pribatuak lagunduta...), bitartekoei buruz eta finantzaketari buruz. Ez da lanbide erraza, lan handia egin beharko da, alderdi politiko guztiekin hitz egin, enplegatu publikoekin eta haien ordezkarekin, eta jendartearekin ere bai. Bestelako esperientziak ezagutu beharko dira eta, batez ere, borondate politikoa beharko da. Geroa Bain horretarako prest gaude.

### **LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK**

Jakin badakigu konponbidea oso konplexua dela eta, arestian esan dugun bezala, adostasun politikotik eta alde guztien arteko elkarriketatik ekin behar zaiola. Hori gogoan hartuta, hona hemen landu beharreko ildo batzuk:

- Foru Administrazioaren eginkizuna birpentsatzea: zer zerbitzu eskaini behar dituen, nola (zuzenean, ekimen pribatuak lagunduta, etab.), zer bitartekorekin eta zer finantzaketarekin.
- Zer administrazio-egitura eta zer-nolako langileria behar den definitzea, egiazko beharrak eta teknologia berriek ematen dituzten aukerak kontuan hartuta.
- Administrazio Publikoaren Eskola sortzea, enplegatu publikoak aukeratu, prestatu eta etengabe gaitzeko tresna izan dadin.
- Funtzio publikoan sartzeko sistema berrikustea, ezagutzei eta gaitasunei buruzko proba objektiboak eta ikastaro teorikoak nahiz praktikoak erabiliz.
- Egiazko administrazio-karrera bat ezartzea, oinarri harturik merezimendua, gaitasuna eta egokitutako eginkizunaren betekizuna.
- Egitura organikoa berrikustea, gutxiago hierarkizatutako antolaketa moldeetara hurbiltzeko, eta administrazio modernoaren egiazko beharrei nahiz egungo gizartearen eginkizunei erantzuteko.

Ardurak merezimenduaren eta funtzionarioen gaitasunaren arabera esleitu beharko dira, aldian behin ardurak ebaluatuko dira, helburuak izanen dituzte, eta postu horietan daudenen erantzukizunak argi eta garbi ezarriko dira, barne dagoela bere kargura dauden langileen eginkizunen jarraipena egitea eta langile horiek motibatzea.





# KIROLAK



## KIROLAK

Nafarroan, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutua Gizarte Politiketako Departamentuan kokatua dago eta, besteak beste, laguntzen eta diru-laguntzen programak zuzendu eta kudeatzea du eginkizun, eta era berean, bere eskumeneko arloetan aholkatu eta txostenak egitea. Beraz, kirolaren bizkarrezurra da gure Komunitatean.

Azken urteotako gorabeheren ondorioz, Institutua neurrigabe dago burokratizatua, eta nabarmen jaitsi dira bai bultzatzen diren programak bai ematen diren laguntzak; horrek Nafarroan kirola eragiten duten eragile guztiak ukitu ditu, eta zenbaitetan, erabat desagertu dira.

Desagertu dira toki entitate eta mankomunitateentzako laguntzak; horren ondorioz, landa inguruneko biztanleria sektore askok ez dute kirol arretarik jasotzen. Murrizketa larriak egin zaizkie tradizio handiko eta partaidetza zabaleko eskola-kanpainei, eta batzuk arriskuan daude; Eski Kanpaina, adibidez (Erronkaribar alderako garrantzi ekonomiko handikoa). Diru-laguntzak alderdikieriaz eta era interesatuan erabili da, eta ondorioz, sinesgarritasuna galdu du. Teknikariak prestatzeko diru-laguntzak kendu dira. Institutuak kirola dinamizatu, aholkatu eta zuzendu behar du, baina egun ez da halakorik egiten.

Kirol eragileekin batera aritzeko aukera handia galtzen ari da, denok elkarrekin arazo kezkarriei irtenbidea bilatzeko. Askotan administrazioak berak sortutako arazoak dira. Gainera, gure klubak zuzendaritzan daudenek lana uzteko arrisku larria dago, zailtasunak ikusita eta bakarrik daudelako. Lagundu behar zaie, araudia egoerara egokituz eta bitartekoen modernizazioa sustatuz, Institutuak, bestalde, dagokion gidaritza onuragarria egin behar du.

Gure jardueraren zeharkakotasuna kontuan hartzen badugu, agerikoa da ez dagoela kirol jarduerak batuko dituen harremanik departamentuen artean, harremana izan dezan Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Politikak, eta Ingurumen eta Turismoarekin ere (jarduera natur ingurunean).

Azkenik, esan dezagun Nafarroako Kirol Kontseiluak ez duela egiazko presentziarik izan Nafarroako kirol esparruan, irizpide politikoak (eta ez teknikoak) erabili baitira erakundeetako ordezkariak hautatzeko. Horren ondorioz, ez du gaitasunik, ez lan dinamikarik, ez emaitzarik.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO KIROL POLITIKA NAHI DUGUN**

Nafarroak kirola sustatzeko dituen eskumekin bat, eta Nafarroako Kirolari buruzko 15/2001 Foru Legea aintzat harturik, komeni da gobernu-ekintzaren oinarritzko helburuak zehaztea kirola eta hari lotutako gainerako arloak sustatzeko eta garatzeko; hots, hezkuntza, osasuna, kultura, ingurumena eta turismoa, bai eta gizarteratzeko beste modu baten gisara ere.

## KIROLAK

Berlingo Adierazpena 2013ko maiatzekoa da, eta Gorputz Heziketaz eta Kirolaz arduratzen diren Ministroen eta Goi Funtzionarioen Nazioarteko Konferentzian ondu zen. Hartan esaten da jende orok izan behar duela kirola eskuratzeko eta hartan aritzeko aukera, **oinarrizko eskubidea** baita, haren jatorria etnikoa, sexua, adina, eragozpenak, kultur eta gizarte jatorria, diru baliabideak, genero-identitatea edo sexu-orientazioa edozein izanik ere.

**Geroa Baik** gure egin du printzipio hori, gure iritziz kirola herritarren eskubidea baita, eta herritarren interesei eta espektatibei erantzun behar die; beraz, kirola egiteak librea eta borondatezkoa izan behar du. Kirola egiten dutenekin batera, entitate publikoek zein pribatuek kirol sustapenean eta garapenean parte hartu behar dute, kirola onuragarria baita funtsezko esparruetan (osasunean, kasu); beraz, herritarren artean ariketa egitea sustatzeko planak egin behar dira.

### LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

- Kirola bizi kalitatea hobetzeko oinarrizko eragilea da: egiturak finkatu eta sustatzea, eta adin guztietan oinarrizko kirola nahiz jarduera fisikoak garatzeko programak.
- Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutua Presidentzi Departamentuan kokatzea.
- Boluntariora arautzea. Boluntarioei laguntzeko plana egitea (entrenatzaileak, zuzendariak, arbitroak, etab.).
- Diru-laguntzen 11/2005 Foru Legea errebisatu eta egokitu; Diru-laguntzen plan estrategikoa ziurtatzea, urtekoa, laguntzak emateko lehiaketak gardenak eta sinpleak izatea, eta kontrolpean egitea, eta kudeaketa ona lehenestea.
- Egun dauden kirol instalazioak modernizatu eta haien erabilera optimizatzeko plana, kirola egiteko ibilbideen garapenean oinarrituta.
- Jardueren eta kirol instalazio publikoen kudeaketa publikoen aldeko apustu argia; zerbitzu jakin batzuk kanpora ateratzeko aukera, baina kudeaketa publikoari eutsita.
- NICDOn sartuta dauden kirol arloko enpresa publikoen eginkizunak Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutura bideratzea.
- Teknikariak prestatzea eta kirol titulazioak, jardueragile sustatzaileen edo kirol dinamizatzaileen figurak sustatuz.
- Institutuak kirol egitea aztertzea eta kudeaketa hobetzea, eta federazioen, klubuen, udalen eta mankomunitateen arteko koordinazioa hobetzea, solapamenduak saihesteko.

- Federazioen parte-hartzea bultzatzea, funtsezko eragileak baitira kirolen garapenean, eta finantzaketa sistema egonkorra ezartzea federazioentzat.
- Behar bezalako politikak, oinarrizko kirola egitea sustatu eta finantzatzeko, haren adierarik zabalenean eta adin guztiak hartzen dituen.
- Interes orokorrekotzat jotako kirol ekitaldien babesa sustatzea; ez, ordea, merkataritza helburua dutenena.
- Kirol aseguruak: irabazi asmorik gabeko kirol erakunde orok garatzen duen kirolaren osasun arreta sustatzea, osasunbideko prestazio baten gisara.
- Behar bezalako irizpideak ezartzea, klubuen eta federazioen betebeharrak sinpletzeko (kontularitza, zergak, lan arloa).
- Nafarroako Kirol Kontseilua jendartearen ordezkartzeko organo gisa bultzatzea, eta kirol eragileentzat irekitzea, parte har dezaten.

Bertako kirolak sustatzea.



# **BARNE POLITIKA**







## **FORUZAINGOA**

Nafarroa azken 30 urte honetan gobernatu duten alderdiek esan dute Foruzaingo integrala dutela xede. Egoera, orde, guztiz bestelakoa da. Ez da borondate politikorik izan, ez hemen, ez Madrilen, Nafarroarako eta Nafarroan egindako segurtasun publikorako estrategia bat garatzeko.

Gobernu erregionalistek, beren ekintzen bidez, agerian utzi dute bigarren mailako Foruzaingoa nahi dutela, Estatuko Segurtasun Kidego eta Indarren mendekoa, ia eskumenik gabea. Horrela, polizia-eredua gaizki planifikatu eta zehaztu dute, adostasunik gabe, oso gaizkia gauzatua, eta huraxe praktikan jartzeko behar adinako segurtasun juridikorik gabe.

Nafarroako polizia-ereduan lau polizia-kidego ari dira (Foruzaingoa, Udaltzaingoa, eta Estatuko bi kidegoak: Guardia Zibila eta Polizia Nazionala). Ez da halakorik, ez Espainiako Estatuan, ez Europar Batasunean. Ondorioz, sistema ez da eraginkorra, ez baitago polizien arteko benetako koordinaziorik.

Geroa Bain uste dugu ez dela oker edo ahanztura inozorik, alderdi zentralistek nahita egindako politika baizik, Nafarroako segurtasun publikoak Estatuko Gobernuaren eskuetan jarrai dezan, Polizia Nazionalak eta Guardia Zibilak bakarrik gauzatze aldera, aitortuak ditugun eskubide historikoei eta legalei tokirik utzi gabe, eta eskubide horiek aukera ematen diete nafar herritarrei, arlo polizialean Foruzaingoaren bidez gure autogobernua gauzatzeko.

Inolako zentzurik al du hainbat Kidego lehian aritzeak Nafarroan gertatzen diren kasuak bereganatu nahian? Inola ere ez, guk uste; polizia guztiak gutxiegi erabiliak baitaude, eta horrek gainkostua dakarkie Nafarroari eta Estatuari.

## **SUHILTZAILEAK, BABES ZIBILA ETA BOLUNTARIOTZA**

Suhiltzaileek eginkizun dute jendeari, ondasun materialei edota ingurumenari Nafarroan kalte eragiten ahal dieten arrisku elementu guztiei arreta egitea, betiere prebentzio, azkartasun, eraginkortasun eta proportzionaltasun printzipioekin bat. Eginkizuna betetze aldera, ustez baliabide kualifikatuak dituzte eskura, arrisku-egoeretan eskumenak dituzten erakunde, departamentu eta segurtasun kidego guztiekin koordinaziopean.

Geroa Bain usten dugu egungo jendartean dauden arazo asko, eta Suhiltzaile Zerbitzuen esku-hartzea eragiten dutenak, ahalik eta gehien murriztu litezkeela, eta arazorik ere ez izatea, herritarrek oinarrizkoa balekitezute eta, oro har, larrialdi kontuetan. Jendarteari ia ez zaio prestakuntzarik ematen arlo honetan.

Nafarroan, babes zibileko lanetan aritzen diren boluntario guztiek Nafarroako

## BARNE POLITIKA

Larrialdi Agentziarekin hitzarmena duen erakunde baten bidez aritzen dira. Hitzarmenarekin bat, Nafarroako babes zibilerako sisteman txertatzen dira, eta zehaztua dago zer lankidetzara mota eta zer baldintzatan egiten duen boluntario talde bakoitzak. Boluntarioak eskuzabaltasunez eta altruismoz aritzen dira.

Nafarroan badira suhiltzaile boluntarioak (Agoitz, Bera, Goizueta, Izaba, Leitza, Lesaka, Luzaide), boluntarioak babes zibilean (Tutera, Cintruenigo, Milagro), eta erakundeak, hala nola Salbamendu txakurraren taldea, Espeleosocorro Taldea, Nafarroako Mendi Federazioa, Psikologo Elkargoa, Gurutze Gorria, DYA, EBYS-NAVARRA eta Remer (irratia afizionatuak).

Nafarroako Larrialdi Agentzia larrialdiak kudeatzeko organoa da Nafarroan, baina jarduketa-planaren garapenean gabeziak ditu, bai kudeaketa administratiboan bai antolaketa. Larrialdi deiak SOS aretoan jasotzen dira, eta Foruzaingoaren CMCK polizia kontuetarako dei zuzen asko jasotzen ditu; horrek deskoordinazio handia eragiten du, eta bikoiztasuna ere bitartekoetan eta langileetan. Larrialdi teknikarien lanak, bestalde, suhiltzaile buruek egiten dituzte, eta ez dago larrialdiak kudeatzeko teknikari espezialistarik.

Babes Zibileko plan asko teoriko hutsak dira, eta beharrezkoa da planok eraginkorrak eta eragingarriak izatea, gizarte eragile guztiek edo haietan esku behar duten talde guztiek ezagutzea, eta maiz, simulakroak egitea. Gainera, ez dago Gizarte Larrialdirako planik, ezta unitate edo talderik behar horri erantzuteko ere, gizarteak gero eta gehiago eskatuta ere. Beraz, gabezia nabarmena da nafar jendartearentzat.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO BARNE-POLITIKA NAHI DUGUN**

Nafarroako egungo polizia-eredua zentzugabea eta ez-eraginkorra da, hainbat Polizia Kidego eskumen eta eginkizun berberekin aritzea oso garestia baita zergadunentzat. Geroa Bain behar den foruzain kopurura iristea nahi dugu (Nafarroan zergak ordaintzen dituzten langile gehiago), eskumenekin bat, eta mantentzea kenduko zaio Nafarroak Estatuari egiten dion diru-ekarpenetik.

Nafarroak legez gaitasuna dauka Foruzaingo autonomikoa eta autonomia bere osoan garatzeko. Borondate politikoa behar da, eta Geroa Bain badugu. Eta erantzukizun zentzua ere badugu. Beraz, guk proposatutako aldaketak enplegua sortu eta gastuak murriztuko ditu, eta gainera, eraginkortasuna, hurbiltasuna eta arreta handitu eta hobetuko ditu, eta Nafarroak bakarrik zehaztu eta gauzatu du bere segurtasun-politika.

Besteak beste, prebentzioan inbertitzea ardatz hartuta, Geroa Bain

eraginkortasunez eta hobekuntzan jardun nahi dugu bai egungo baliabideen kudeaketan (giza baliabideak, materialak, ekonomikoak), bai koordinazioan (suhiltzaileak, poliziak, Babes Zibileko taldeak, etab.). Halaber, aintzat hartu, finkatu eta sendotu behar da jende askoren ekarpena: segurtasun arloko profesionalak, Babes Zibila, larrialdiei arreta egitea, eskarmentu handiko langileak.

### **LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK FORUZAINGOA**

Foruzaingoari eskumenak esleitu baino lehen, plangintza bat taxutu behar da. Plangintzak Foruzaingoa mailaka garatzea aurreikusi beharko du, polizia autonomia eskusiban eta pixkana ezartze aldera, 2020rako bere osoan gara dadin. Prozesua elkarriketatuz, elkar hartuz eta adostasunez egin behar da, proiektuak etorkizuna izan dezan, eta egonkorra nahiz eraginkorra izan dadin. Horrenbestez, biderei behingoan ekiteko, honakoak egiten dira:

- Akordioa egiten da Estatuarekin, Foruzaingoa egiazki garatzeko, eta erabateko eskumenak izanen ditu Trafikoan eta Garraioetan, Herritarren Segurtasunean, Ingurumenean, Ikuskizun publikoen Ikuskaritzan eta jarduera sailkatuetan, Ordena Publikoan, eta polizia-lanari loturiko gainerako arloetan, nafar eta estatuko legeriak berak aitortzen dutenarekin bat.

- Foruzaingoa Garatzeko Plan Eragileak funtsezko atalak barnebidu beharko ditu, hala nola Prestakuntza Plan bat, eskumenean mailakako garapenari eta eskuratzeari estaldura emateko. Beraz, Nafarroako Segurtasun Eskola garatu beharko da, bai eta kasuan kasuko titulazioak ere.

- Egiazko koordinazioa garatuko da Nafarroako Udaltzaingo guztien eta Foruzaingoaren artean. Orobat, Nafarroan diharduten polizia guztien arteko informazio-sistema bat ezarri behar da.

- Foruzaingoan enpleguari eta euskara sustatzeari buruzko indarreko araudia betetzea bultzatuko da (Euskarari buruzko Legea eta 195/1993 Foru Dekretua).

- Espetxeei dagokienez, aski da Foru Hobetzearen 58. artikulua ezarritakoa betetzea, hau da, Estatuak Iruñeko espetxea Nafarroako Gobernuaren eskuetan utzi behar du; horrek espetxeratuak gizarteratzeko politika egitea ahalbidetuko luke.

### **SUHILTZAILEAK, BABES ZIBILA ETA BOLUNTARIOTZA**

- SOS Navarra-ko Salaren lana sendotzea, denetarikoa larrialdi deiak jasotzeko zentro bakarra izan dadin.

- Larrialdiak Kudeatzeko teknikari espezialisten figura sortzea, larrialdi guztiak

## BARNE POLITIKA

koordinatzeko arduradunak izan daitezzen; haien agindupean, suhiltzaileek, poliziek, boluntarioek, Babes Zibileko taldeek eta abarrek jardungo dute.

- PREBENTZIOA izanen da Foruzaingoaren, Udaltzaingoan, DSuhiltzaileen eta Babes Zibilaren lanaren funtsezko ardatza.

- SUHILTZAILE eredua zehaztea. Suhiltzaile Zerbitzuaren Plan Zuzendaria egitea.

- Egungo larrialdi planak Gaitzeko Plan bat prestatzea, eta aldian behin, haien simulakroak egitea, planak ebaluatze, hobetze eta ezagutze aldera.

- Esku-hartze Plan berria prestatzea, boluntario talde guztiei lekua uzteko.

- Gizarte Larrialdirako Plan bat prestatzea, jendartean gero eta zabalagoa den eskariari erantzuteko.



# GAZTERIA, ETORKIZUNEKO PROIEKTUA

## GAZTEOK BAIren PROPOSAMENA





## GAZTERIA

**Geroa Bai** alternatiba berria eta berritzailea izan nahi du gazteriarentzat, baina oroz gain, erakargarria, gazteek eskatzen dutenarekin bat; hau da, indarren eta ahaleginen batura izan nahi du, gazteen irrika politikoak eta sozialak jendartearen aitzinean adierazteko asmoz. Horregatik, Geroa Bai lan egin, eta gazteen oraina eta geroa ziurtatuko dituzten politikak garatu behar ditu, eta hedaduraz, etorkizuneko Nafarroa ziurtatuko dutenak.

Hori dela eta, Geroa Bai gazteen presentzia eta parte-hartze aktiboa sustatu beharko du, xede dugun aldaketa politiko eta soziala gidatzeko. Aldaketa bakarrik gauzatuko da, den-denok, gazteok nahiz helduok, besoz beso lan egiten badugu, eta bakoitzak bere esparrutik lan egiten badugu egungo egoera onbideratzeko.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO NAFARROA NAHI DUGUN**

Gure etorkizuna eraikitzeke tresna gisa, Nafarroa anitza, irekia, euskalduna eta eleanitza nahi dugu, identitate guztiak errespetatuko dituen, soziala eta solidarioa; bere eskubide historikoak eta demokratikoak zaindu eta handitzeko nahia agertzen duen Nafarroa; bizikidetzan oinarritutako Nafarroa.

**Proiektu Politikoa.** Gure irudikoz, Nafarroa subjektu politikoa da, eta erabakimena du. Nafarroak bere ezaugarriak eta nortasuna ditu, kanpoko eta barneko inposaketarik gabe. Era berean, gure etorkizunaz askatasunez eta demokratikoki erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatzen dugu.

**Gizarte Proiektua.** Geroa Bai borroka eginen du, berdintasuna eta oinarritzko eskubideak bermatzeko Osasunean, Hezkuntzan, Etxebizitzan, Kulturean, Lanean, Baliabideetan eta Aisian; horiek murriztu edo pribatizatzeko saiakeren aurka eginen du, eta berriazko politiken alde eginen du, gazteek hezkuntzan, etxebizitzan, lan prekarioan, etab. dituzten arazoak konpontzeko. Geroa Bai arreta berezia aldarrikatuko du gure gizarte politika hobetzeko funtsezkoak diren gizarte eta lana arloetarako, hots, Espainiako Gobernuak Nafarroaren eskuetan utzi nahi ez dituen; Gizarte Segurantza, adibidez.

**Bakegintza.** Giza eskubideen alde, inolako salbuespenik gabe, indarkeria oro amaitzea, biktimen eta presoek eskubideak, mehatxuak eta torturak amaitzea, adierazpen askatasuna, aukera politikoa eta memoria historikoa. Gure irudikoz, Nafarroa funtsezkoa da helburu hori lortzeko. Gaur egun, Nafarroa, instituzionalki, bazterrean dago; beraz, engaiamendu handiagoa eskatzen dugu.

### **HONATX ZER NEURRI PROPOSATZEN DITUGUN**

Enplegua. Kezkagarria da gaur egun hala gazte langabeen tasa handia nola enplegu prekarioaren maila handia, ez baitator bat jendarte aurreratuekin.



## GAZTERIA

Horrek guztiak, seguritatez eza eta beldurra eragin ditzake gazte jendearen bizitza jarreran; horregatik, enplegua sortzearen aldeko politika aktiboak eta eraginkorrak aldarrikatzen ditugu, bai eta prestakuntza iraunkorra eta gaikuntza ere.

Enplegu planek apustu tinkoa eta berariazkoa egin behar dute gazteen alde. Gazteentzako enplegu eginkorra eta kalitatezkoa sortu, mantendu eta finkatzeko neurri fiskalak, eta era berean, gazte kualifikatu langabeak edo enplegu ez kualifikatuak dituzten gazteak kontratu mugagabeen bidez kontratatze laguntzak; eta gazte langabe ez kualifikatuak prestatzeko eta laneratzeko programak. Egungo Gazte Ekintzailtza eta Enplegu Estrategia ez da eraginkorra, ezta nahikoa ere, eta gazte ekintzailtza eta autoenplegua zinez sustatuko dituzten politiken aldekoak gara.

Era berean, gazteak nekazaritza eta abeltzaintzan aritzea sustatu behar da, ahalik eta laguntza modulaturik handienak emanez eta diskriminazio positiboa aplikatuz mendi eremuetan, gazte eta bikoteei, emakumeei, kooperatibismoan... eta lurralde bulego bat sortuz, burokrazia arintzeko eta landa ekintzailtzarako informazioa emateko. Halaber, sektore ekonomiko hori bultzatzea proposatzen dugu, nekazaritza eta abeltzaintza arloko prestakuntza programa berariazkoak sortuz.

**a. Gazte enplegurako premiazko plana.** Diskriminazio positiboa kontratazioan, adin taldeen berezko interesak gordez. 31 urtetik beheko plantilla ehuneko bat galdatzea enpresa publikoei, diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten pribatuei, eta Administrazio Publikoari berari ere bai.

**b. Lehen enplegua eskuratzeko plan berezia,** iraupen luzeko eta lan merkatuan esperientziarik ez duten gazte langabeentzat, edota esperientziarik ez duten ikasketak egin dituzten arloan.

**c. Ekintzailtza bultzatzeko pizgarri fiskalak,** adin taldeen arabeko tasa marjinal berriak ezarrita.

**d. Industria eta ekoizpen plan berria,** egungo ekoizpen-ehuna berritze aldera, I+G+b arloan inbertituz, funtsezko sektorea baita belaunaldi berrientzako lana sortzeko; halaber, egungo ehuna eta tradizionala biziberritze aldera, belaunaldi txandaketa finkatzeko.

**Elkartasuna eta Gizarte Politika.** Gazteak emantzipatzeko laguntzak finkatu behar dira eta gazteentzako berme sistema bat, prekarietatean dauden gazteentzat. Era berean, gazteen parte-hartzea bultzatzea proposatzen dugu, gizarte politikei begira, boluntariorik bidez elkartasunezko balioak eta herritarren partaidetzazko balioak sustatze aldera.

**Geroa Baik** apustu tinkoa, garbia eta garrantzitsua egin behar du gazteriarentzat, gazteen autonomia bermatze aldera, gazteria arloko politika integralak, zeharkakoak eta koordinatuak garatuz, garapen integraleko ingurune onuragarriak bermatzea xede hartuta (biologikoa, psikologikoa eta soziala) hala pertsonalki nola kolektiboki, eta era berean, haurren eta gazteen eskubideen errespetua bermatze aldera. Horretarako, Haurren, Nerabeen eta Gazteen Behatoki bat sortzea proposatzen dugu, hurbiltasunez aipatu politikak bidera ditzan.

**a. Gazteentzako Berme Sistema.** Gazteentzako berme errenta bat sortzea, gazteen bizitza garapenean aukera berdintasuna bermatze aldera.

**b. Nafarroako Gobernuan Gazteria eta Haurrak Kontseilaritza sortzea.** Harmen mendean, Haur, Nerabe eta Gazte Behatokia egonen da, bai eta Gazte Arartekoa ere.

**Kultura.** Kultur ekipamenduen gaineko planteamendu guztiz berria egin behar da, hala nola erakusketa gelak eta udak auditorioak, Nafarroako Museoa edo Nafarroako Goi-mailako Musika Kontserbatorioa. Gazteei hurbildu behar zaie gazteentzako erakargarriak diren jarduerak eta edukiak antolatuz. Erro-errotik aldatu behar da esparru horien erakusketa-baldintza eta norabide bakarreko izaera eta, horren ordez, bi norabideko harremana eraiki behar da, haietan gazte presentzia sustatzeko, elkarrekintzan eta **doakotasunean** oinarriturik.

Gazteen kultur ekoizpena sendotzearen aldeko apustua egin behar dugu, **arte eta kultur topaketarako guneak** sortuz, gazteek beren arte dohainak gara ditzaten, gainerako artistekiko sinergiak sor ditzaten, eta bestelako adierazpen tresnak landu ditzaten, hori guztia gure udalerrietako kultura sendotze aldera. Era berean, artisten erakusketak, aldizkarien argitalpenak, solasaldiak eta eztabaidak sustatu behar dira.

**a. Gazte kultura diruz laguntzeko programa,** zineman eta ikuskizunetan deskontuak bideratzeko; bereziki, diru publikoa jaso duten film eta ikuskizunetan.

**b. Sormenerako nahiz erakusketetarako kultur eta arte esparruak sortzea,** gazteentzat, edo Gazteleku sarea, Nafarroa osoan.

**Aisia.** Ikuskizun eta Aisia Jardueri buruzko Legea erreformatu behar da, parte-hartze sozial zabalaren bidez, interes guztiak ordezkatuak egon daitezen. Segurtasunari buruzko araudia aisia lekuetan eta "gaueko ituna" gizarte eragile inplikatu guztien artean.

**Hezkuntza.** Guk proposatzen dugun hezkuntza-ereduak ikaslearen **autonomia**

**pertsonala eta ahalduntzea** sustatu nahi ditu, eta haren sormena sustatu; horretarako, hezkuntza curriculumak pertsonari eman behar dio balioa eta **ekintzaitzaren kultura** garatu behar du. Era berean, sexu eta genero hezkuntza eskolen eta institutuen irakaskuntzan sartze proposatzen dugu.

Lehentasunez behar bezalako aurrekontua aldarrikatzen dugu NUPentzat, kalitatezko hezkuntza publikoa mantentzen aldera eta % 100n euskaraz eskainia, unibertsitate-tasak berrikustea, eta ikasketa eta mugikortasun beken sistema berme-emailea. Era berean, prestakuntza eskaintza publiko integrala eskatzen dugu, hainbat ikasketatan dauden gabeziak betetze aldera (medikuntza edo arkitektura, adibidez), Nafarroatik kanpo joan behar baitugu horiek ikastera edota zentro pribatuetara. Irakaskuntzari dagokionez, ez da unibertsitate-autonomia mugatu behar, ezta Nafarroak arlo horretan dituen eskumenak ere.

Ikasleen ikasketa eskubidea eta ikasi nahi duten huraxe ikasteko eskubidea bermatu behar da. Berdin-berdin bermatu behar dira informazioa eta sustapena hala unibertsitatean nola Lanbide Heziketan, Europan bezala, bataren irudia bestearen mesedetan kaltetu gabe.

**a. Aukeraberdintasuna hezkuntzansartzeko.** Interesik gabeko finantzaketa-plana, integrala eta berrikusgarria, edozein prestakuntza mailatan sartu nahi duen pertsona orok (goi-mailako ikasketak, lanbide heziketa, ikasketak ez arautuak, artistikoak, etab.) ikasteko aukera izan dezan, bai Nafarroan bai atzerrian. Inbertsio publikoaren itzulera enplegua lortzeari lotuta geldituko litzateke baldintzatua, talentua aberriratzeko sistema batean; azken helburuak hezkuntza, enpleguarrtasuna eta emantzipazioa izan behar du.

**b. Mugaz gaindiko campusa.** Gure ikasleen mugikortasuna bermatuko duen unibertsitate-eredu bat sortzea.

**c. Trukaketa programen finantzaketa bermatzea.** Nafarroatik atzerrira ikastera doan gazte orok baldintza duinetan joan behar du, Nafarroako Gobernuak bermaturiko baldintzetan.

**d. Hezkuntza-eredu berria.** Esperimentazioa eta inbertsioa hezkuntza-eredu berrietan; hau da, laguntasun-figura hutsak izateaz haratago, aurkikuntzara bideratutako figurak izan daitezela, hainbat kultura aurreratuagotan gertatzen den bezala, hala nola Suedian eta Norvegian, eta adibidetzat eta helburutzat jo behar ditugunak.

**Azpiegiturak eta garraioak.** Sektorez sektoreko plangintzak ekipamenduak sortu behar ditu, etorkizuneko ikuspegia aintzat hartuta, finantzaketa arazoak moldatuko dituen, eta ingurumeneko iraunkortasuna nahiz gazteen

enpleguarrtasun geografikoa kontuan hartuko dituen.

**a. Garraioa diruz laguntzeko programa.** Gazteen mugikortasuna bermatuko duen sistema, garraibide publikoetan deskontuak ezarrita, hirugarren adineko jendearentzat edo iraupen luzeko langabeentzat Iruñeko TUCen egiten den bezala.

**Etxebizitza.** Lurzoruari buruzko foru arauketa berriaren aldekoak gara, gure administrazioen esku-hartzea eraginkorragoa izan dadin, etxebizitza sustatzeko politika aktiboa abiarazte aldera (alokairukoa, bereziki), etxebizitza eskuratzea eta gazteen emantzipazioa egiazki eta eraginkorki errazte aldera, eta bizikidetzaredu berriak kontuan hartuta, bai eta gazteen beharrak eta eskariak ere. Prekariatatean dauden gazteentzako etxebizitza hutsak borondatez eta diruz lagunduta alokatzea bideratutako politikak proposatzen ditugu.

Gainera, hiri konfiguraziorako kultura berria lehenestearen aldekoak gara, pertsona autoaren gainetik jarriko duena, eta garraibide iraunkorren erabilera sustatuko duena, bereziki bizikleta erabiltzea bultzatuz, bidegorriak sortuz eta bidegorriak erabiltzea sustatuko duten arauketak eginez.

**a. Emantzipazioaren behatokia sortzea,** Nafarroako Gobernuari behar diren neurriak proposatzeko, gazteen emantzipazioa bermatze aldera.

**b. Etxebizitza publikoen sarea alokairu sozialerako.** Etxebizitza ehuneko erreserbatzea proposatzen dugu, adin taldeen arabera.

**Garapen Iraunkorra eta Ingurumena Babestea.** Energia iraunkortasunez erabiltzeko politikak proposatzen ditugu, berrerabilpenean eta birziklapenean oinarrituriko heziketa, hondakinak egokitasunez kudeatzeko eta, era berean, hiri eta lurralde arloko iraunkortasunezko politika bat abian jartzeko; hasteko eta bat, ingurumen-heziketara behar diren baliabideak baliatzea proposatzen dugu maila eta adin guztietan.

Gainera, zentro handi bat sortzeko eskatzen dugu, Nafarroan ekoizten den Energia Berdea koordinatzeko, kontsumoaren % 100era iristeko asmoz, eta horretarako, Nafarroan ikasitako profesional belaunaldirik gazteenak I+G+b arloan enplegatzearen aldekoak gara.

**Nekazaritza eta Oihangintza.** Ingurumen eta ekologia arloko teknikak sustatzea, kalitatezko produktuak lortzeko; arras ikuskera berria garatzea **nekazari gazteentzako laguntzetan**, landa-ingurunea hustu eta zahartu ez dadin, eta horrez gain, eremu horietan, **ekoizpen-sare tradizionalaren iraupena** bermatze aldera. Horretarako, politikak nekazaritza sindikatuekin eta erakundeekin adostu beharko dira, eta esne-kuota gutxienez ere kontsumoaren mailarekin parekatu.

## GAZTERIA

**a. Landa-ingurunea laguntzeko entitate bat sortzea.** Leihatila bakarra, ekoizpen-eredu hori zabalduen dagoen geografia-eremuetan, eta ez Iruñean bakarrik, zertarako eta landa-inguruneke langileen administrazio, zerga eta prestakuntza arloko eskariei erantzuteko.

**b. Landa-ingurunerako prestakuntza-zentroa.** Prestakuntza-zentroak nekazaritza eta abeltzaintzako ezagutzak eta teknikak irakastea bermatu behar du, sektorean belaunaldi txandaketa bermatze aldera.

**Osasuna.** Nerabeak berariaz hezteko eta haiei laguntzeko programak sortzea **bizimodu osasungarrietan, arduran, alkohol eta drogen kontsumoan, eta sexualitatean**, Osasunbidearen mendean. Foru eta Udal Administrazioek jarrera proaktiboa izan behar dute, eta adin egokietan hezkuntza eta informazioa lehenetsi behar dira, politika zuzentzaileen ordez.

Era berean, osasun-sistema publikoaren aldekoak gara, eta arintasun handiagoa eskatzen dugu, kotizatzen ez duten edo diru baliabiderik ez duten 26 urtetik gorakoei osasunerako eskubidea aitortzeko izapidean.

**a. Antisorgailuetarako sarbide finantzatua,** beste gai farmazeutikoekin gertatzen den bezala.

**b. Kanabis kontsumoa despenalizatzea.**

Sistema demokratikoa hobetzea. Alderdi politikoei hautes-zerrendetan gazteak sartzeko konpromisoa eskatzen diegu, sistema demokratikoa irekiagoa eta parte-hartzaileagoa izan dadin. Era berean, kontsulta-erreferendumak eta/edo lotesleak deitzeko eskumenak aldarrikatzen ditugu, eta etorkinen bozketa eskubideen aldekoak gara, behar diren arauketa baldintzak ezarrita.

Beharrezkotzat jotzen dugu udal kudeaketan aurrekontu parte-hartzaileak ezartzea, eta gazteen parte-hartzea hala udaletan nola Foru Komunitatean, gazte arloan, erraztuko duten bideak, gazteen ekintza jardyera lehengoratu eta sustatzeko.

# LEHEN SEKTOREA





GEROABAI

Oinarri Politikoak

## LEHEN SEKTOREA

Nafarroako Barne Produktu Gordinaren %3 inguru Lehen sektoreari dagokio, baina lan egiten duen biztanleriaren %6 inguru hartzen du. Hori guztia nekazal elikadura industria kontutan hartu gabe, gure komunitatean garrantzi handiko sektorea, 10.000 nafar herritarren lanbide delarik. Sektore honek gainera, bere zailtasunekin, handiagoak azpiko zenbait sektoretan, egun bizitzen ari garen krisialdi honi besteek baino hobe aurre egitea lortu du.

Nekazaritzari dagokionez, landatutako azalera gure Komunitateko azaleraren %30 ingurukoa da. Lehorreko lurrek pisu handiagoa dute, baina sail ureztatuak garrantzi handiagoa hartzen ari da pixkanaka. Ekoiztutako tonei begiratu, zerealak (garia eta garagarra bereziki) eta bazka-laborantzak (alpapa, denboraldiko belardia eta bazka-artoa) dira zalantzarik gabe laborantza nagusiak. Atzetik datoz barazkiak (aniztasun handia, tomateak eta brokolia buru), mahastiak, fruta-zuhaitzak (sagarra, udarea, mertxika buru) eta olibadia.

Abeltzaintzari dagokionez, abelgorriena eta txerriena gutxiagotuz doaz, ardiena egonkorragoa delarik. Jarduera ekonomikoak oso emaitza ezberdinak erakusten ditu espeziearen eta sortutako ekoizpenaren arabera (esnea edo haragia), kasu batzuetan urtetik urtera aldaera handiak daudelarik.

Testuinguru honetan garrantzizkoa da ustiapen kopuru eta batz besteko tamainen bilakaera ikertzea, bai eta hauen jabeen batz besteko adina eta jarduera honetara sartzan diren gazte maila.

Bestalde, berriki Estatuko Gobernuak europar arloan sartu zuen 2014-2020 programazio eperako Nekazaritza Politika Bateratuaren negoziaketa, garrantzitsua hau, ustiapenetako diru-sartzeen portzentaje garrantzitsua baitira. Gobernuaren triunfalismoaz gain, egia esateko, DPN bat (denbora nagusiko nekazaria edo abeltzaina, bere kasuan) egoteko aukera aparta galdu da lehen sektorerako diru-laguntzak jasotzeko irizpide bezala. Azalera erreferentziazko irizpide moduan mantentzen da (ez adibidez abelburu kopurua) eta gainera ez dira akordio egokiak lortu mahastientzat ez eta barazki eta fruitu-zuhaitz ustiapenetan.

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO LEHEN SEKTOREA NAHI DUGUN**

**Geroa Bai**ren irudikoz, funtsezkoa da nekazaritzan eta abeltzaintzan bizi diren eta lan egiten duten herritarren lana aitortzea eta aintzat hartzea. Natura errespetatuz, herritar horiek biztanleria lurrari atxikitzea bermatu eta landa inguruneak bizirauten dituzte, eta, horrez gainera, ederki kudeatzen dituzte mendiak, oihanak eta lurrazaleko gainerako esparruak, beren jardueraren bitartez. Horrela, arbasoek utzi diguten natura eta kultura aberastasuna zaindu eta babesten dute.



## LEHEN SEKTOREA

**Geroa Baik** nekazaritza eta abeltzaintza sendo baten aldeko apustua egiten du. Horretarako, funtsezkoa da belaunaldien arteko jarraipena ziurtatzea —gazteak jarduera horretan sartzea, lehen sektorean ari diren pertsonen batez besteko adin altua jaisteko—, landa esparruak hiriguneei dituzten antzeko ekipamendu eta zerbitzuz hornitzea eta, batez ere, jarduera ekargarri bihurtzea, diru sarrerak eta bizi kalitatea ziurtatuz. Ez da onartzen ahal nekazariak eta abeltzainek jasotzen dituzten prezioak aspaldikoak bezalakoak izatea, nahiz eta kontsumitzaileek ordaindu behar dituzten bukaerako prezioek gora jarraitzen duten.

Horretarako, **Geroa Bairen** ustez, nekazaritzak eta abeltzaintzak landa ekonomiaren oinarri nabarmenak izaten jarraitu behar dute —ustiatze familiarrek izan behar dute lehentasuna— eta, horrekin batera, funtsezkoa da industria eta zerbitzuen alorretako enpresa txikiak eta ertainak sortzea.

### LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK

Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren bizirautea eta garapena ziurtatzeko xedez, Geroa Baik honako ildo hauek proposatzen ditu:

- 1.** Nekazari eta abeltzainen eta nekazaritzako elikagaien industriaren eta banaketa zabalaren arteko harremanetan zentzuzko prezioak ezartzea bermatzen duten ekimen guztiak bultzatzea eta laguntzea, azken komunitate-araudien irizpideak jarraituz. Lehen sektorearen eta elikagaien nafar industriaren arteko ulertaraztea lagundu, horrela ahalik eta sinergia gehien sortzeko, gure ekoizleen tratu zentzudun eta gardenak oinarri hartuz.
- 2.** Nekazariak, batez ere, eta eredu estentsiboagoak ahalbidetzen dituzten inbertsioak modulatzeko eta positiboki diskriminatzea, baita sektorearen barneko dibertsifikatzea xede duten inbertsioak ere. Komunitate mailako erakundeek oraindik onetsi ez duten 2014-2020 Programazio Epea (2. zutabea), 1. zutabeko gabeziak orekatzeko zeharkako bide izateko eta nekazal eskualdeen biziraupena bermatzeko, bereziki baldintza zailenak dituztenentzako, ahaleginak areagotu.
- 3.** Nekazari berrien eta dagoeneko lanean ari diren profesionalen artean aldi baterako elkartzeko esperimentalari eta horren antzeko beste ekimen batzuei laguntzea. Gazteei laguntzea, pixkanaka edo mailaz maila jardueran has daitezten.
- 4.** Kalitatezko produktuak lortzeko, ingurumenaren eta ekologiaren alorretako teknikak bultzatzea eta, badaezpada, genetikoki eraldatutako abere eta landare organismoen bost urteko luzamendua ezartzea.
- 5.** Gure produktuen kontsumoa bultzatzea, eta horri eraginkortasunez

ekiteko, lurraldeari loturiko bereizte eta identifikatze politikak baliatzea (sormarka, adierazpen geografiko babestua, labela...), politika horiek behar bezala kudeatuz. Era berean, beste ekimen batzuk aitzinatu behar dira: ekoizleak kontsumitzaileari zuzenean saltzea, merkaturatze zirkuitu laburrak eta kontsumo arduratsuko sareak sortzea.

- 7.** Ordezkeri gehien dituzten sindikatu eta nekazaritza erakundeekin adostasuna bultzatzea.
- 8.** Nekazaritza politiken ildo nagusiak finkatzen dituzten nazioarteko foroetan —Europakoak batez ere— Nafarroak aktiboki parte hartzea ahalbidetzen duten neurriak bultzatzea.
- 9.** Nekazal eta abeltzaintza ustiapenak hobetzeko inbertsioak bultzatzea, Nekazal Makineria Erabiltze Kooperatibak barne.
- 10.** Enplegu sortzea eta teknika ekologikoak sustatzeko diru-laguntza politikak finkatu.
- 11.** Gaur egun ditugun azpiegituren optimizazioa ahalbidetzeko ekimen guztiak sustatu, bereziki Nafarroako Ubidearena, horrela, enplegu sortze eta finkatzean bere ekarpena gehiena izateko.
- 12.** Euromontanara berehalako gehitzea.

RO, JESUS · ALONSO OINES, JESUS · ALONSO LARRAUNA, CRESCENTE · ARMENDARIZ USABA, JESUS · ARRIETA OCHOA, FELIPE · CHOCARRO  
· RIPA DIAZ, VICTOR INO · RONCAL ALONSO, BENITO † RONCAL ALONSO, BLAÑA · RONC AL URRA, VICENTE · ZOZOYA JORAJURIA, FLORENTINO **ALTSASU / ALSASUA**  
· RTIN · FERNANDEZ ALEJOS, PABLO · FERNANDEZ OTEGUI, EDUARDO · FERNANDEZ OTEGUI, GREGORIO · FERNANDEZ, ENRIQUE · GARASA GALBETE, JOSÉ MARI · GAR  
· ECEA LARRAZA · PABLO · LECEA LARRAZA, ROMAN · LECEA LARREA, FELIX · LECEA M AZQUIARAN, TOMAS · LIZARRAGA, JOAQUIN · LIZARRAGA, SABIN · LOPEZ ARCAU  
· ANTONIO · SANCHEZ VIDONDO · ANTONIO · SANZ ARTEGA, ELOY · SOMOCURCIO ALBISTUR, MARTIN · UBEDA APAOLAZA, JOSE · UBEDA SANCHEZ, JOSE · URIBE ANDA, I  
· RCIA, AGUSTIN · GOCHITERES, FELIX · GONZALEZ SADABA, FELIX · GURREA UREÑA, TOMAS · LIPUZCUA MARTINEZ · HILARIO · MARIN ALVARO, JULIO · MARIN FANDO · RA  
· TIERRA VELEZ EMILIO · SAN MIGUEL MORENO, FRANCISCO · SAN MIGUEL MORENO · GREGORIO · SAN MIGUEL MORENO · ROSARIO · SARASA SADABA, TEOFILO · JUAN · SESMA  
· IN · ITARTE NUÑI, SANTOS · JIMENEZ ARZOZ, JAIME · LEON INDA, AURELIO · LEON INDA · JAIME · MIGUELIZ ITOIZ, JOSÉ · NAGORE VILCHES, BIBIANO · NAVARRO TEJ  
· IDRES · DELMAS ASENSIO, ANACLETO · DELMAS ASENSIO, JUAN † FALCES SANZ, EUSEBIA · LEON MARTINEZ · JUSTINO · MARTON ARROSE, JOAQUIN · MARTON BIENZ  
· ARELLANO · EZEQUIEL **AURITZ / BURGUETE** · MILLAR ESCANDON · ANTONIO · PEREZ · LUQUIN, EVARISTO **AZAGRA** · ALONSO PRADO, AMANCIO † ALONSO PRADO, F  
· O · IÑIGO MARTINEZ, AURELIO · IÑIGO REGAIRA, ILDEFONSO · LEON SANCHEZ, MIGUEL · LEON TERES, EMILIANO · LOR ENTE LOSANTOS, ANDRES · LOSA, ANTONIO · L  
· NO LURI, ENRIQUE · MORENO MILLA, FRUCTUOSO · MORENO MORENO, JULIO · MURO LURI, GREGORIO · MURO MARTINEZ · EMILIO · NAVARRO GARCIA, JOSÉ M<sup>º</sup> · NAVARRO  
· RTUNATO **BEINTZA - LABAEN** · ELIZALDE ERASUN · PEDRO · TELLETXEA ELIZALDE, JUAN JOSE **BEIRE** · BARIAN JUSUE, VICTOR · BASARTE PEREZ, JOSE · BASARTE REY  
· AUSTINO · SEMINARIO IRAIZOZ, CESAREO · **BERBINZANA** · ALFARO DIEZ, TOMAS · ASENJO MUTUBERRIA, FRANCISCO · CHOCARRO ARMENDARIZ, ANTONIO · CHOCARRO B  
· E, VALERIANO † ITURRALDE OLAETXEA, M<sup>º</sup> FRANCISCA **BERTIZARANA** · GOÑI IBERO, MARTIN **BETELU** · ARIN LASKARAI, CARMELO **BUNUEL** · ABESTRE LITAGO, A  
· CIRIA · RESTITUTO · LITAGO CHUECA, GREGORIO · LITAGO COSO, JESUS · LITAGO RODRIGUEZ, ESTEBAN · MARCOS CERDAN, PABLO · MARQUES BAIGORRI, VICTORIANO · MA  
· AEZ RODRIGUEZ, PABLO · SANCHEZ BLASCO, LUCIO · SERRANO BOROBIA, VALENTIN · SERRANO LARA, PASCASIO · TRISTAN LITAGO, JULIAN · TRISTAN CHUECA, E  
· ACARIO PEDRO · PAZ PERALTA, DAMASO · JULIAN · PEREZ COSO, PASCUAL · PEREZ ENERIZ, SANTIAGO · PEREZ GALINDO, LUIS · SERRANO DOMINGUEZ, LEONCIO **CADREITA**  
· CHEZ JIMENEZ, ANGEL DANIEL · SANCHEZ JIMENEZ, EMILIO · SANCHEZ JIMENEZ, JESUS A. · TORRES FERROL, JULIAN · VICIOSO GIL, JOSE · VICIOSO GIL, PIO **CAPARR**  
· TE IRIBARREN, PEDRO · MORENO ALBA, SANTIAGO · NAPAL ESPARZA, GERARDO · NAPAL LOPEZ, UBALDO · ORMAECHEA ABAURRE, JESUS · PEREZ CALATAYUD, FLORE  
· OLAS · COLAS IZAL · VICTORIANO · DIAZ DE BADA ABADIA, JOSE M. · FELIPE MARTINEZ, EDUARDO · GARCIA LIEDENA, ALEJANDRO · GARCIA LIEDENA, VALERIO · GARCIA  
· PEREZ LOPEZ, CECILIO · PEREZ LOPEZ, EUSEBIO · RUBIO OTEIZA · FRANCISCO · RUIZ · BADA, CRESCENTE · RUIZ ABADIA, JULIAN · RUIZ LOPEZ, CARMELO · RUIZ OSES, FEL  
· BADA GASTON, RICARDO · PEREZ AGUERRI, ELADIO · PEREZ REMON, BLAS · PEREZ REMON, GIPRIANO · PEREZ REMON, GUILLERMO · SANZ GELAYETA, MATIAS · SOPEÑA MAR  
· DE EL FUERTO, EUGENIO · SORIANO, JUAN · SORIANO, PEDRO · SORIANO, VICENTE · SORIANO, VICENTE · SORIANO, VICENTE · SORIANO, VICENTE · SORIANO, VICENTE · SORIANO, VICENTE

# BIZIKIDETZA, MEMORIA ETA ADISKIDETZEA

· ALVATIERRA OSTA, JESUS · TORRANO LOS ARCOS, EUGENIO · URRRA VIGO, FABIAN · VARCANGEL EXPOSITO, RAMON · VEGA OYAGA, MIGUEL **ESTERIBAR** · GARCIA BASA  
· **FALCES** · ALFARO JIMENEZ, NICOLAS · ARMENDARIZ · RESANO · MELCHOR · BIURRUN ALEMAN, RECAREDO · BIURRUN NAPAL, EDUARDO · BIURRUN NAPAL, IRINEO · FERNAN  
· · RINCON MORENO, LUIS · RINCON VELASCO, ELADIO · TAINTA · MARTINEZ, TEODORO · TORRES REY, JOSE · UBASOS LATIENDA, JOAQUIN **FITERO** · AGUIRRE FRIAS  
· · CALLEJA LARREA, MIGUEL · CALLEJA PRADA, FELIX · CALVO IZQUIERDO, JOSE · CASADO ARRANZ, JUSTO · DIAZ ALIAGA · MANUEL · DUARTE CINTORA, ENRIQUE · FERNAN  
· RIGUEZ FERNANDEZ, FRANCISCO · SESMA VERGARA, RICARDO · YANUAS FERNANDEZ, JACINTO · YANUAS HERNANDEZ, DOMINGO **FUNES** · AGUADO ANTON, ESTEBAN · AGU  
· RIAN · LIZARDI ALCALDE, JUAN · LORENTE FERNANDEZ, LUIS · MARTINEZ ROMERO, ESTEBAN · MEDRANO ESTARRIAGA, JESUS · MEDRANO TORRES, LUCIO · MONASTERIO CARO  
· IBÁÑEZ VICENTE, RUFINO · IÑIGUEZ OVIEDO, FRANCISCO · MATEO · OLIVER, MACARIO · POLON FERNÁNDEZ, LUIS · REDRADO · GRACIA, CLAUDIO · VALLEJO LABORDA, C. EUGEN  
· ON, TOMAS **GAZTELU** · GOÑI SAGARDIA, JUANA JOSEPA · SAGARDIA GOÑI, ANTONIO † SAGARDIA GOÑI, ASUNCION · SAGARDIA GOÑI, FRANCISCO JAVIER · SAGARDIA GOÑ  
· AN, VALERIANO · EZKER MARCO, SEBASTIÁN · EZKER MARKO, VICTORIANO · EZKER MAYO, CALIXTO · GARATE ANSÓ, CIRIACO · GARCES HUALDE, SERAPIO · GAYARRE BARACE  
· FERNANDEZ NIETO · DANIEL · FOLIO BARBARIN, BABIL · GABARI FADRIQUE, ISIDORO · GARCIA GARCIA, FELIX · GARCIA GARCIA, JESUS · GARCIA GARCIA, PERPE  
· HIERRO, AMADO · OCHOA HIERRO, FELIX · JESUS · RODRIGUEZ REYTA, ANDRES · RODRIGUEZ RODRIGUEZ, FRANCISCO · RODRIGUEZ SUESCUN, BABIL · SOTES SADA, F  
· · ARRONDO RESANO · MAXIMIANO · AZCONA OCHOA, EMILIO · CARNICA BELTRAN, HILARIO · DIAZ ABADIA · FEDERICO · FERNANDEZ GIL, VICENTE · GIL ROLDAN, RAMON · GIL  
· IA, MARCOS BRUNO · ABADIA ARRASTIA, MATEO · ABADIA HERNANDEZ, JULIAN · AGUIRRE ARONA, LUIS · ALONSO VALERIO, ANGEL · ANTON MARTINEZ, PABLO · BAIGORRI AYES  
· IS · EGUIZABAL ARRONIZ, TOMAS · ENCINA GIL, JOSÉ MARÍA · ESPARZA MURO, ANTONIO · ESPARZA MURO, FRANCISCO · ESPARZA MURO, SALUSTIANO · ESPARZA PEREZ,  
· OPEZ RODRIGUEZ, MIGUEL · LOPEZ ROLDAN, DELFIN · LOPEZ VIRTO, CARLOS · MANERO SANCHEZ · SA FELICIANO · MARTINEZ ARTOLA, JOSE · MARTINEZ ECHAVARRI, ESTEBAN · MAR  
· RO, SANTIAGO · MOLINET ROMO, FELIPE · MORENTIN REMIREZ, BENITO · MORENTIN REMIREZ, FRANCISCO † MORENTIN ROLDAN, AMADA · MORENTIN ROLDAN, ANTONIO · M  
· TE DEL · RODANO FERNANDEZ, FRANCISCO · RODRIGO RAMIRO, VALENTIN · RODRIGUEZ BALBOA, ISIDORO · ROLDAN LUCEA, ANGEL · ROMERO BAIGORRI, LUCIO · ROMERO  
· MORENTIN, FERMIN · VERGARA RODRIGUEZ, FELIX · VILLORIA MARTINEZ, MANUEL **LOS ARCOS** · ABALOS SOLANO, JOSE · ALECHA ALEGRIA, JESUS · ALVAREZ DIAZ, L  
· FXARRI EQUIZA, VICENTE · GURPEGUI ZABALZA, AURELIO · RODRIGO NAGORE, FRUCTUROSO · TURRILLAS BEROIZ, JUAN · ZARO BALLAZ, JUAN **MANERI** · SANTESTEBAN  
· EJANO, VENANCIO · GOMEZ POZO, MANUEL · GOÑI BONETA, MAXIMO · HERNANDEZ MINIGUILLON, JULIAN · HERNANDEZ SUESCUN, SATURNINO · INCHAUSTI GARRIDO, EUGE

· DISCO · GARDE MUSGO, VITORINO · GARDE SESMA, ANASTASIO · GARRIBAY URDICAIN, EMILIANO · JASO ERVITI, FRANCISCO · JASO GARDE, JOSE · MORON · MURUGARREN MATIAS · PEREZ JASO, VICENTE · SESMA AZAGRA  
· O · CANILLAS ROMERO, GUILLERMO · CENZANO VALERIO, LEONARDO · DIAZ GONZALEZ EMILIO · ELVIRA ASURMENDI, ELADIO · ELVIRA PONZALEZ, MARTIN · ELVIRA MARTINEZ, COSME · ELVIRA MARTINEZ, HILARIO · ELVIRA  
· ZLIZUAN, DIONISIA · MARTINEZ MARTINEZ, JUAN · MARTINEZ ORDOÑEZ, VICTOR · MARTINEZ ROMERO, JULIO · MARTINEZ SANZ, LUIS · MARTINEZ VALERIO, TOMAS · MATEO ELVIRA, JULIO · MONTOYA SUBERVIOLA, LUIS · MU  
· NZ ALONSO, JACINTO · SAINZ GARCIA, CESAREO · SAINZ URSUA, LUCIO · SALCEDO SADABA, DIONISIO · SALCEDO SADABA, PEDRO · SALCEDO SABASTI, SEGLINDO · SANCHO ELVIRA, PEDRO · SANCHO SANZ, SALVADOR · SA  
· DIONISIO · BARCO MARTINEZ, PABLO · BARRADO PEIENAUTE, ANTONIO · BROCA EXPOSITO, FELIX · CARRASCON ARMENDARIZ, LEONARDO · CENTRO LOPEZ VALELO, CARMELO · DIAZO LAGUNA, CANDIDO · DIAZ JIMENEZ,



GEROABAI

Oinarri Politikoak

## BIZIKIDETZA, MEMORIA ETA ADISKIDETZEA

Begirada iraganean pausatzen badugu, ikusiko dugu Nafarroan hainbat indarkeria mota izan direla urte sail luzean.

Batetik, 1936an, indarkeria ilegítimoa eta bidegabea erabili zen, arrazoi politikoak izan zirela medio, gerra-fronterik gabeko Nafarroa hartan, noiz eta frankismoa finkatu zen garaian. Erregimen berriak argudio bakarra baliatu zuen; hots, indarra eta indarkeria erabiltzea bestelako pentsamoldea zuen jendea ezabatzeko. Erregimenak aginte-kate politiko militar bat diseinatu zuen eta, horren ondorioz, gizon-emakume errugabeak ezpondetan, hilerrietan eta eremuetan fusilatu zituzten, eta hobi komunetan lurperatu, bestelako ideiei fidel izateagatik. Garai hartan, maite zuten jendea galtzeaz gain, familiek estatu berriaren zapalketa zitala pairatu zuten.

Bestalde, hainbat indarkeria-adierazpen ezagutu ditugu azken hamarkadetan (atxiloketak eta jazarpen bidegabeak, torturak, erailketak, denetarikoko estortsioak), eta biktima kopuru handia eragin dute, eta biktima guztiek merezi dute egia jakiteko, justiziarako eta ordainerako eskubidea; baita oraindik lege babesik ez duten biktimek ere. Geroa Bairen irudikoz, lege babes hori ezinbestekoa da. Atal honetan, ETAREN indarkeria terroristak berariazko balorazioa behar du, eta agertu bidegabea eta ilegítimoa izan dela, eta biktimei eta senitartekoei kaltea eragin zaiela; indarkeria horrek luze jo baitu, inposaketa politikoa izan baitu xede, trantsizioaren eta amnistia orokorraren ondotik iraun baitu, laguntza soziopolitikoa jaso baitu eta, batez ere, giza kalte izugarria eta larri-larria eragin baitu.

Aurrekari horiek direla eta, eta ETAK behin betiko jarduera armatua eten egin duela iragarri izanaren ondoren, Geroa Bairen irudikoz ezinbestekoa da plan bat Nafarroan bultzatzea, nafar jendartean bakea eta bizikidetza sustatzera bideratua, jendea askotan muturtua baitago bere adierazpenetan, baina jendarteak izan behar du prozesu guztiaren egiazko ardatza. Memoriaren Kudeaketa Integralaren ikuspegitik pentsatutako plana izanen da.

**Gizarte topaketa** hori helburu, Geroa Bai prest dago alderdi politiko guztiekin hitz egiteko, inor bazterrean utzi gabe, biderik egokienak aztertze aldera, eta betiere honako oinarriak abiaburu hartuta:

### **HONA HEMEN ZER-NOLAKO BIZIKIDETZA, MEMORIA ETA ADISKIDETZE POLITIKA NAHI DUGUN**

#### **Oinarrizko printzipioak:**

1. ETAREN bukaeraren aurreko jarrera: baldintza ETA desagitea da, inolako baldintza politikorik gabe. Horretarako, lehen urratsak desarme egiaztagarria



izan behar du, eta haren egiturak era antolatuan, seguruan eta behin betiko eraistea.

**2.** Duintasuna eta oinarrizko giza eskubide guztiak zorrotz errespetatzea, hasteko eta bat bizitzeko eskubidea; beraz, indarkeria xede politikoekin erabiltzearen aurkako jarrera. Kontua da lurzoru etikoa onartzea, behar adinako gehiengo batek partekatzen duen minimo gisara, iragan mingarriari ateak ixteko, eta guztientzako etorkizun itxaropentsuari ateak irekitzeko.

**3.** Bakeak memoria, justizia eta ordaina ekarri behar ditu biktima guztientzat, salbuespenik gabe. Horrek berekin dakar eragindako kaltea aitortu beharra, eta biktimen egitarako duten eskubidea, kontakizun kritiko, autokritiko eta partekatuaren bidez, distantziakidetasunik gabe, honako baldintza hau onartuta: "ez isildu, baina ez iraindu". Giza eskubideen urraketa guztiak gertatu dira, taldeek eta pertsonak bestelako helburuak giza duintasunaren gainetik jarri zituztelako. Ez zaio sekula lekurik utzi behar zigorgabetasunari.

**4. Memoriaren Kudeaketa barne-hartzailea egitea,** Biktimak eta Biktimarioak gaia aztertuko duena. Kontakizunak ez dezala memoria denboran mugatu, jende gehienak onartzeko moduko Kontakizun batekin begiratu diezaiola etorkizunari, bake sustraitua xede; eta ondoko belaunaldietan adiskidetze posiblea eta desiragarria.

**5.** Elkarrizketa bidea gatazkak eta desberdintasunak konpontzeko prozedura gisa; hau da, elkarrizketa eta hitza, joko demokratikoaren arauak errespetatuta.

**6.** Prebentzio-mekanismoak sustatzea, gertatutakoa berriz ere ez gertatzea bermatzeko.

Esparru horretan, Geroa Baik beharrezkotzat jotzen du honako jarduketa-ildoak jorratzea

### **LEHENTASUNEZKO JARDUKETAK:**

**1.** Bakegintza eta Bizikidetzaren Lantaldea sortzea Nafarroako Parlamentuan eta, nolana ere, Nafarroako Bakegintza, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Idazkaritza edo Zuzendaritza Orokorra sortzea, Gobernuaren Lehendakariaren Departamentuaren mende, arlo honi dagozkion ekintza guztiak planifikatu, bultzatu eta koordinatzeko.

**2.** Txostenak eta datu-base ofizial, publiko eta osoa prestatzea giza eskubideetan izan diren urraketa guztiei buruz, gerra zibilaren, diktadura frankistaren eta egungo erregimen konstituzionalaren garaiak barne harturik. Historialariek eta ikertzaileek berrikusten jarraitu behar dute azken garai horri

buruzko interpretazio nagusi ofiziala, Franco hil ondorengo amnistia legetik hasita. Era berean, ez dugu onartzen jurisdikzio unibertsalari ezarritako mugak: giza eskubideak ez dira inoiz preskribatzen eta ez dute mugarik.

**3.** Garai horietako indarkeriaren sinbologia guztia kentzea (oraindik ere bere horretan dirauten ikurrak), eta toki horiek baliatzea memoria historikoa aldarrikatzeko, eta erabilera zibileko tokiak izan daitezela, gertaturiko erailketen salaketa publikoa egiteko (adibidez, Ezkaba mendiko gotorlekua eta Erorien Monumentua delakoa Iruñean). Era berean, Iruñeko Rodezno kondearen plazari izena aldatu eta Memoria Historikoaren plaza izena ematea proposatuko dugu, eta nafar erakundeek urtean behin ekitaldi sinboliko bat antola dezatela, giza eskubideetan izaniko urraketen biktima guztien oroitzapenetan. Jendarteari ulertarazi behar zaio memoria historikoa berreskuratzearen aldeko borrokaren zeharkakotasuna.

**4.** Behar diren lege ekimenak bultzatzea, biktima guztiak aitortzeko eta haiei ordaina emateko, barne sarturik nazioarteko estandarren arabera (torturari buruzko ikerketa eta ekintza) eskubide urraketa larriak pairatu dituztenak eta babes bera ez dutenak. Horren haritik, sendotu behar dira erakundeek eta jendarte zibilak segurtasun indar eta kidegoen gaineko kontrol ziurtatzeko mekanismoak.

**5.** Prebentzio adostasunak sustatzea arlo bereziki sentikorretan, dela iraganekoak (argitzea), dela orainekoak (normalizazioa), dela etorkizunekoak (adiskidetzea), bakegintza, bizikidetzaren eta adiskidetze kultura berria finkatze aldera, mikroakordio delako metodologiaren bidez, eta era berean, herritarren partaidetzarako eztabaida foroak antolatuz.

**6.** Giza eskubideak sustatu eta hedatzeko politika publikoak zehaztu eta bultzatzea, lehenik eta behin hezkuntzan (formalean eta ez formalean), kulturaren, unibertsitateetan eta komunikabideetan hasita. Nafarroako elkarte-sare aberatsa eta anitzarekin lankidetzan aritzea, eta herritarren parte-hartzea sustatzea, udaletatik ere bai, tokian tokiko bakegintza eta bizikidetzaren batzordeak bultzatuz.

**7.** Espetxe politikari buruzko gomendioak jasoko dituen irizpen bat prestatzea, salbuespenezko neurri oro gainditze aldera (Parot doktrina, kasu), Europako Giza Eskubideen Auzitegiak jada kondenatua. Bestelako adibideak dira ez askatzea zigorra bete duena edota larriki gaixo dagoena, eta presoaren familiak zigortzen dituen sakabanaketa politika, edota Europar Batzordearen Kontseiluaren 2008/675/JAI Esparru Erabakiaren interpretazio berria, zeinak aukera ematen baitu Batasuneko beste herrialde batzuetan



## BIZIKIDETZA, MEMORIA ETA ADISKIDETZEA

emandako kondanak deskontatzeko. Eusko Jaurlaritzaren Zuzen Bidean gisako ekimenak bultzatzea, arlo honetan erreferentziazkoa baita.

**8.** Presoak banaka gizarteratzeko prozesu guztiak bermatzea; bide horri beren borondatez heltzen dioten guztien prozesuak, alegia.

Horretarako guztirako, behar-beharrezkoa izanen da lankidetzaren estuan aritzea Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiarekin (betiere, Nafarroan dagoen berariazko egoera abiaburu harturik), hein handian ekimenak ez bikoizteko, eta baliabideak nahiz jarduerak optimizatzeko (adibidez, Memoria eta Bizikidetzaren Institutuarekin); halaber, Europar Batasunarekin, eta Nazio Batuek Giza Eskubideetarako duten Goi Batzordearekin, eta Estatuko Gobernuarekin.

Azkenik, inola ere ez da proposamen hau eta haren ondoko garapena nahastu behar Nafarroako esparru juridiko-politikoari buruzko eztabaida politikoarekin. Era berean, ez da nahastu behar topaketa zibiko-sozialaren esparruari buruzko eztabaida aurrepolitikoarekin, izaera etikokoa baita, eta hala denez, batu egin behar gaitu, alderdien aukera politikoez haratago.

**“Iragana mingarri zaigu; oraina, kezagarri, eta etorkizuna - geroa - lokarri”**



**GEROABAI**

LA NAVARRA DE TODOS/AS  
GUZTION NAFARROA

[www.geroabai.com](http://www.geroabai.com)

